

AURKIBIDEA

Otsailaren 22an, HAUSTERRE EGUNA	5
Otsailaren 26an, GARIZUMAKO I. IGANDEA.....	13
Martxoaren 5ean, GARIZUMAKO II. IGANDEA.....	22
Martxoaren 12an, GARIZUMAKO III. IGANDEA	29
Martxoaren 19an, GARIZUMAKO IV. IGANDEA	37
Martxoaren 26an, GARIZUMAKO V. IGANDEA	45
Apirilaren 2an, ERRAMU IGANDEA	52
Apirilaren 6an, OSTEGUN SANTUA.....	63
Apirilaren 7an, OSTIRAL SANTUA	71
SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN.....	84
ADISKIDETZE SAKRAMENTUA.....	85

GARIZUMAKO BEDEINKAPEN NAGUSIA

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jainko Aita errukitsuak eman diezazuela guztioi,
seme hondatzaileari bezala,
aitaren etxera itzultzeko poza. ✠. Amen.

Otoitz- eta bizitza-eredu den Kristok
eraman zaitzatela, Garizumako bidetik,
egiazko bihotz-berritzera. ✠. Amen.

Jakinduria eta ahalmen Espirituak
indar zaitzatela gaiztoaren kontrako borrokan,
Kristorekin batera pazko-garaipena ospa dezazuen. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Otsailaren 22an **HAUSTERRE EGUNA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizuma hasten dugu gaurko Eukaristia honekin. Bertan hautsaren ezaugarriaren bidez gure bekatari izatea aitortuko dugu, eta Bataioaren bidea berreginez Pazkora gerturatu behar dugula onartuko dugu. Penitentzia-aldia eta Bataio-aldia badugu Garizuma, baina bereziki Pazkorako prestaera aldi dugu. Larunbat Santu gauez ospatuko dugun Pazko Gaubeila Santuari begira jartzen gara gaurtik. Han garbituko dira gaurko hautsaren bekatu-aztarnak. Han berrituko da gure Bataioko hitza. Han Kristo garaile agertuko da berriz heriotzaren gainetik bizia berrituz. Pazkoa dugu guk, hitz emandako lurra. Hara goaz, Israel-herri izaki, basamortuko bidea eginez.

Hautsaren ezaugarria egingo denez, ez da Damu-otoitzik egingo

Otoitza

Lagun iezaiozu, Jauna, kristau-herriari
barau-egun honekin benetan bihotz-berritzeko bidea hasten,
penitentziaz indarturik,
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleginean garaile atera dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Garizumako jarrera berezia da, penitentzia eginez prestatzea. Pazkoan Kristoren heriotzaren lehenengo ondorioa: Jainkoarekin adiskidetzeari gertatuko da, horretarako prestatzen ari gara.

Lehenengo irakurgaia (Jl 2, 12-18)

Joelen profezia liburutik

Orain, honela mintzo da Jauna: «Itzul zaitezte Nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isur-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkongelatik, emaztea ezkonohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barkatu zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela menderatu atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”» Bere lurraldearekiko maitemenez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Erantzun-salmoa (Sal 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be - ka - tu e - gin du - gu ta.



∞. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko gupidaz.
Garbi nazazu zeharo neure errutik,
garbitu neure bekatutik. ℞.

∞. Aitortzen dut, bai, neure hobena,
begi aurrean dut etengabe neure bekatua.
Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu, '
zure begietan oker dena egin dut.
neure hobena beti begien aurrean baitut. ℞.

∞. Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,
berritu arnasa sendoa nire barnean.
Ez nazazu bota zeure aurretik,
ez kendu niri zeure arnasa santua. ℞.

∞. Poztu nazazu berriro zeure salbamenaz,
sendo nazazu zeure arnasa oparaaz.
Ireki, Jauna, nire ezpainak,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena. ℞.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 20 – 6, 2)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitzte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamina irits genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Sal* 95 [94], 8a. 7d)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∇. Gaur, ez gogortu zuen **b**ihotza,
entzun Jaunaren **a**hotsa. ☩.

Ebanjelioa (*Mt* 6, 1-6. 16-18)

Homiliarako argibideak

Bihotz-berri zaitzte eta sinetsi berri ona

Berrogei eguneko aldi ederra hasten dugu gaur: Garizuma. Aldi honetan, eguneroko ebanjelioan bizitza espiritualerako bikainak diren zatiak entzungo ditugu, gaur bezala.

Lehenengo irakurgaiak lotura handia du Ebanjelioarekin. Kristau-bizitzaren hiru oinarri adieraziko dizkigu Jesusek: elkarbanatzea (alaitasun giroan), otoitz egitea (Jainkoak asebetetzen gaituela aitortuz) eta hainbat gauzari uko egitea (Jainkoarengana bihotz bihotzez itzultzeko).

«Itzuli nigana bihotzez». Hori esaten digu guri ere... bihotzak urratzeko eta ez jantziak... geu aldatzeko eta ez aldamenekoak.

Gizakiak joera du... «kanpoko gauzei» begira egoteko. Profetek betidanik bestelako deia egin digute: bihotza aldatu behar da. Gure ezaugarri, penitentzia eta sakrifizio guztiek... bihotzetik sortuak badira eta maitasuna adierazten badute bakarrik balio dute.

Garizumaldi hau izan dadila barnera begiratzeko aukera. Azaleko bizitzatik, bizitza sakonera igarotzeko aldia izan dadila. Ohituraz egiten duguna, pentsatu ere egin gabe egiten duguna... Jaunaren eskutik biziz egiteko saiakera egin dezagula. Emaguzu, Jauna, bihotz berria!

Hori dugu Garizumako otoitza: Jaunari bihotz berria eskatzea. Beraren irudi egin gaitzan uztea, berriz, gure ahalegina. Jainkoarekin adiskideturik eta bere eskutik biziz lortuko dugu hori.

Utz diezaiogun Jainkoari egiten... Garizumaldia Jaunaren asmoa ezagutu eta geureganatzeko aldia izan daiteke. Berarekin adiskidetzeko eta maitasun sutsuz bizitzeko aldia. Jainkoak bete-betean bizi gaitzela nahi du... gurekin duen maitasun-ituna berritu nahi du. Adiskidetze sakramentuak eta Eukaristian parte hartzeak lagunduko digu, zalantzarik gabe, ahalegin horretan. Jesus gehiago maitatuz ikasiko dugu besteak gehiago maitatzen.

Jaunak dena eman du gure alde. Guk dena ematen ikas dezagun. Ez da aski "inori kalterik ez egitea" denean on egitea eskatzen zaigu... eta "Aita bezala errukitsu izatea".

Pazko gau-beila santuan egingo dugun bataioaren berritzea gaur hasten da... gure ezina adierazten duen errautsarekin. Gau santu hartan garbituko dira gure errauts, bekatu eta ezinak eta bat egingo dugu estuago Kristo gure Jaunarekin.

Hautsaren ezaugarria

Apaizak, zutik eta eskuak bildurik dituela, esango du:

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarri hartuko dugun errautsa bere grazia ugariz bedeinka dezan. *(Isilunea)*

Oi Jainko, damutzen dena errukiz hartzen duzu
eta bihotz-berritzen dena Zeurekin adiskidetzen;
entzun aita-bihotzez zeure herriaren otoitza
eta isuri bedeinkapenaren + grazia
errautsa hartuko duten zeure seme-alaben gainera,
Garizumako bidea arretaz eginik
eta gogo-bihotzak eraberriturik,
zure Semearen pazko-misterioa ospatzera irits daitezten.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. *℟̄. Amen.*

Edota:

Oi Jainko, ez duzu bekatarien heriotza nahi,
bihotz-berritzea baizik;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta bedeinka + ezazu buruan ezarriko diguten errauts hau;
badakigu hauts garela eta hauts bihurtuko;
emaguzu, Garizumako egintzen bidez, bekatuen barkamena, zure
Seme piztuaren antzeko biziera berria irits dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟̄. Amen.*

Eta ur bedeinkatuz zirtatuko ditu errautsak, ezer esan gabe.

Gero denei batera esango die esaldi hauetakoren bat:

Bihotz-berri zaitetze eta sinetsi Berri Ona.

Edota:

Gogora zaitetz hautsa zarela eta hauts bihurtuko.

Ondoren jendeari buruan ipiniko dio hautsa isilik, ezer esan gabe.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin diezaiogun otoitz gure Jainko ahalguztidunari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Eliza bere kide guztiakin eta gizaki guztiakin bihotz oneko izan dadila. Egigun otoitz. *℞.*

—Agintariak, bigarren mailako gizakirik egon ez dadila lan egin dezaten. Egigun otoitz. *℞.*

—Sufirimendua eta zatiketa bizi duten familia guztien alde. Egigun otoitz. *℞.*

—Seme-alaba garela konturatuz, elkarren senideago izan gaitezela. Egigun otoitz. *℞.*

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta agertu zure errukia herri honengan, Garizumako egun hauetan bihotzez bila zaitzagun eta konfiantzaz itxaron. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℞.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Garizumari hasiera ospetsuki ematean,
sakrifizio hau eskaintzen dizugu, Jauna,
eta otoitz egiten: gure penitentziek eta maitasunezko egintzek
lagun diezagutela geure buruaren jabe izaten,
geure bekatuetatik garbiturik
zure Semearen nekaldia bihotzez ospa dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun sakramentuak, Jauna,
eragin diezagula Zuk atsegin duzun
eta guretzat osasungarri den baraua egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Oi Jainko, eman bihotz onez damu-espiritua
zure aurrean apalki makurtzen diren zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zure errukiari esker irits dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

Otsailaren 26an
GARIZUMAKO I. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako lehen igandea dugu gaur, Pazko festaburuari begira, Kristoren nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzeko prestatuz.

Bataioa hartu izanak zer esanahi duen konturatzeko aldia ere badugu hau: pazko gaubeila santuan berrituko baitugu, Kristoren argitan, gure bataioko hitza.

Basamortura eraman eta bihotzera mintzo zaigu Jainkoa. Garizuma dugu basamortu hori, Jainkoaren Hitza entzun eta berarekin topo egiteko. Egin dezagun Garizumaren esperientzia jatorra!

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoak ez du bekatariaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiogun:

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez / jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, / Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarrari diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℞. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
 egizu, Garizumako urteroko jarduerak eraman gaitzala
 Kristoren misterioa hobeki ezagutzera
 eta berari dagokion eran bizitzera.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-emana, elkarrizketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitzza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-emana, elkarrizketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitzza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Lehenengo irakurgaia *(Has 2, 7-9.; 3, 1-7)*

Hasiera liburutik

Jainko Jaunak gizona moldatu zuen lurreko hautsez eta bizi-arnasa bota zion sudur-zuloetara, eta gizona bizidun gertatu zen.

Gero, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden, sortalderantz, eta han ipini zuen berak moldatutako gizona. Jainko Jaunak mota guztietako zuhaitzak sortu zituen lurretik, begientzat eder eta ahoarentzat gozo, eta baratzearen erdian biziaren zuhaitza eta ongiaren eta gaizkiaren ezagutza ematen zuen zuhaitza landatu zituen.

Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan maltzurrena. Sugeak esan zion emakumeari: «Debekatu egin omen dizue Jainkoak baratzeko arbola guztietako fruituetatik jatea».

Emakumeak erantzun zion: «Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jan dezakegu; baratze erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: “Horretatik ez jan, ezta ukitu ere hori, hil nahi ez baduzue”».

Sugeak esan zion emakumeari: «Ez zarete hilko, ez! Ongi daki Jainkoak, horretatik jan orduko, begiak irekiko zaizkizuela eta bera bezalako izango zaretela, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe».

Emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera iristeko on zela ikusirik, haren fruituetako bat hartu eta jan egin zuen; gero, senarrari eman zion eta hark ere jan egin zuen. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta larru gorri zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten.

Erantzun-salmoa (*Sal* 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be-ka-tu e - gin du-gu ta.

- ∞. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko gupidaz.
Garbi nazazu zeharo neure errutik,
garbitu neure bekatutik. ∞.



- ✠. Aitortzen dut, bai, neure hobena,
 begi aurrean dut etengabe neure bekatua.
 Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu, '
 zure begietan oker dena egin dut.
 neure hobena beti begien aurrean baitut. ✠.
- ✠. Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,
 berriitu arnasa sendoa nire barnean.
 Ez nazazu bota zeure urre aurretik,
 ez kendu niri zeure arnasa sa santua. ✠.
- ✠. Poztu nazazu berriro zeure salbamenaz,
 sendo nazazu zeure arnasa oparoaz.
 Ireki, Jauna, nire ezpainak,
 eta nire ahoak iragarriko du zure gorespenna. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 5, 12-19 edota, laburrago 5, 12. 17-19)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. [Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatuarekin egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da.

Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, askoz ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta

dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia. Eta ondorioei dagokienez ere, Jainkoaren dohainarekin ez da gizon bakarraren bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, bekatuak, bakarra izan arren, denen gaitzespena izan du ondorio; dohainak, berriz, bekatuak asko izan arren, denen barkamena.]

Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira betiko bizian nagusi izango bakar batengatik, Jesu Kristogatik, salbamenaren grazia eta dohain oparoa hartzen dutenak!

Beraz, baten bekatuak gizaki guztiei gaitzespena ekarri zien bezala, baten leialtasunak gizaki guztiei salbazioa eta bizia ekarri die. Eta baten obediencia ezagatik guztiak bekatari gertatu ziren bezala, baten obedienciaz gatik guztiak zuzen gertatuko dira.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 4b)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∇. Gizakia ez da ogiz bakarr**rik** bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guzti**tik** baizik. ⚔.

Ebanjelioa (Mt 4, 1-11)

Homiliarako argibideak

1. Garizuma bihotz-berritze garaia da. Argi-ilunez osatutako gure giza bizitzari buruz hausnartzeko garaia. Jainkoak aske egin gaitu eta, horrexegatik, hain zuzen, ongiaren eta gaizkiaren artean

aukeratzeko aukera dugu. Jainkoarengandik aldentzeko eta bekatu egiteko aukera, hau da, Berak eskatzen diguna ez betetzeko aukera, gaizkiaren probokazioari edo erakargarritasunari amore emanaz. Era guztietako tentazioz inguratuta bizi gara. Horiek guztiak zoriontasuna lortzeko bide gisa aurkezten zaizkigu. Sakon aztertuz gero, besteen gaitetik boterea edo nagusitasuna izateko tentaldiak laburbiltzen ditu, segurtasun-iturri gisa edukitze edota aberastasuna izateak ere bai, besteen aurrean agertu eta egoismoaren edo itxuraren plazera bilatzera. Hitz batean, Jainkoa gure bizitzaren erdigunea eta absolutoa dela ahaztera tentatuak gara.

2. Kristok, benetako Jainko eta benetako gizona denak, bere bizitzan tentaldiak probatu nahi izan zituen haiek gainditzeko bidea erakusteko. Jainkoaren Erreinua bere indar eta botereaz inposatzeko tentazioa izan zuen, eta Aitak, berriz, Erreinuak ahultasunean, sufrimenduan, ustezko porrotean pausoa emango zuela erakutsi zion. Giza baliabideak eta aberastasunak erabiltzeko tentazioa izan zuen, mundu honetako inperioen estilora bizi eta gauzak lortzeko, baliabide gehien zituena eta, beraz, guztiona baino handiagoa zena bezala agertzeko. Aitak ulertarazi zion Erreinua Jainkoaren boterea agertzen den bitartekoen pobrezian eraikitzen dela. Mirari etengabeekin eta aparteko seinaleekin itsutzeko tentazioa izan zuen; Jainkoaren egitasmoan, berriz, Erreinuaren arrakasta ez dago itxuraren mende, baizik eta Jainkoak jarduten duen bizitza arruntaren soiltasunaren mende, dena gizakiaren esku geratzen den arren.

3. Kristok, alde batetik, Jainkoaren Erreinuaren logika erakutsi zigun eta, aldi berean, gure bizitza pertsonalean eta ebanjelioaren zabalkundearen tentazioak gainditzeko bidea adierazi zigun: Jainkoaren Hitzaren bidea. Ebanjelioa irakurtzen eta hausnartzen dugu, gure bizitza pertsonalean botereari, edukitzeari, distirari,

plazerari buruz sentitzen duguna ulertzeko. Eta Jainkoaren Hitzak tentazio horiek gainditzeko indarra emango digu. Ebanjelioa zabaltzearen eremuan, Jainkoaren planarekin bat jarduteko jarraibideak adierazten dizkigu. Gaur egungo gizartean, badirudi botere-egituretan oinarritzen bagara eta munduko ideologiekin eta proiektuekin lehiatzeko baliabide ekonomikoak baditugu soilik izango dugula arrakasta. Ebanjelioa zabaltzean, teknologia modernoa erabil daiteke, baina ez teknologiaren zerbitzura, Erreinuaren zerbitzura baizik. Jainkoaren Erreinuaren gauza handiak gauza txikietatik sortzen dira, boterea Jainkoarengandik datorrelako. Aitagurea errezatzen dugun bakoitzean tentaldian ez erortzeko eskatzen diogu Jainkoari. Hitz horiek errepikatuko ditugu boterearen, edukitzaren, distiraren eta plazer egoistaren tentazioei laguntzeko eskatuz.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senide maiteok egogun otoitz zeruko Aitari, gizaki guztientzat errukia eta bekatariontzat barkamena eskatuz:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Garizumaldi honetan, Jainkoak bere fededunei gaitzaren aurka egiteko, bere okerretatik zuzentzeko eta onbidera itzultzeko behar duten indarra eman diezaiela Jaunak. Egigun otoitz. ☩.

—Ondasunez oparo bizi direnek, daukatena behartsuen onerako erabiltzen jakin dezatela, eta mundu honetako ondasunetan liluratuta ez daitezela bizi. Egigun otoitz. ☩.

—Gure eskandalu eta epeltasunengatik Elizatik urrundu direnak Jainkoaren familiara itzul daitezela eta Jainkoak geure jarrera horien bekatua barka diezagula. Egigun otoitz. *R̄*.

—Garizumako penitentziaren bidez gure bihotzak, berriz ere, Jainkoaren hitzak fruitu oparoa emango duen lur emankorra izan daitezela. Egigun otoitz. *R̄*.

Ezagutzen duzu, Jauna, gure giza ahultasuna; entzun zure herriaren otoitzak eta emaiozu Zure hitzaren indarrez Garizumako bideari ekitea, tentaldiak garaiturik pozik iritsi dadin Pazko jaietara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa

Garizumako I. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 158. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, opari honekin hasten gara
pazko-misterioa ospatzeko prestatzen;
egizu, gure jarrera izan dadila
eskaintza honek eskatzen duenaren arabera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun ogi santu honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
egizu, ikas dezagula
egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ℞. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Etor bedi, Jauna, ugari zure bedeinkapena
zure herriaren gainera;
emaiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbamena.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ℞. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℞. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordeztan, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 5ean
GARIZUMAKO II. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaurkoan, Garizumako erromesaldian barrena bigarren geltoki bezala, Antzaldatzearen igandea dugu: Jesus Bizia, gizon-emakumeei gizatasun eta izate berria eskaintzen. Jesus antzaldatua, gutariko bakoitza –elkarte osoa– antzaldatzen.

Pazko Gaubeila Santura begira jartzen gaitu batzar honek: Pazkoan gertatzen da gure egiazko eraberritzea, Jesusen piztuera da gauza guztiak antzaldatzeko indarra duen gertakaria.

Damu-otoitza

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damuturik bekatuen barkamena eskatuz:

—Jesus Jauna, gure erruak gar**bit**zen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guran bihotz gar**bia** sortzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro em**at**ten diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak indartzen gaitu. Jesus da Hitz horren iturria eta Bera da gure jarraibidea: "Ez du inork maitasun handiagorik bere bizitza senideengatik ematen duenak baino".

Lehenengo irakurgaia (Has 12. 1-4a)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurraldea, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri handi egingo zaitut eta bedeinkatuko, izen handia emango dizut eta bedeinkapen-iturri izango zara. Bedeinkatuko ditut zu bedeinkatzen zaituztenak eta madarikatuko zu madarikatzen zaituztenak. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala.

Erantzun-salmoa (Sal 33 [32], 4-5. 18-19. 20 eta 22)

A - ger - tu zu - re e - rru - ki - a. Be - dein - ka, Jau -
na, zu - re he rri - a.



- ✠. Zuzena da Jaunaren ren hitza,
 fidagarria hark egin duen guztia.
 Justizia eta zuzenbidea du maite,
 Jaunaren maitasunaz dago lurra betea. ✠.
- ✠. Jauna arduratzen da begirune diotenez,
 haren maitasunean itxaroten dutenez,
 haiek heriotzatik libratzeko
 eta gosetean bizirik gordetzeko. ✠.
- ✠. Guk Jaunagan dugu esperantza,
 bera dugu laguntzaile eta ta babesle.
 Betor gurekin, Jauna, zure maitasuna,
 Zugan baitugu jarria itxaropena. ✠.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 1, 8b-10)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde. Hark salbatu gintuen eta dei egin zigun biziera santura, ez gure egiteengatik, bere erabakiagatik baizik eta mende guztiak baino lehen Kristo Jesusengan eman zigun graziagatik.

Grazia hau orain agertu da, Kristo Jesus gure Salbatzailea munduan azaldu denean; honek heriotza ezereztu du eta bizia eta hilezkortasuna argitu Berri Onaren bidez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Lk 9, 35)





∇. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:
 Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue. ∇.

Ebanjelioa (Ik. *Lk* 9, 35)

Homiliarako argibideak

1. Zoriontasunerako sortuak izan ginen, baina inoiz ez dugu lortzen erabateko zoriona. Gure bizitza pozez eta tristeziaz, bake-uneez eta tentsio-aldiez, kezkez eta egoera lasaiez osatuta dago. Kristok argi eta garbi hitz egin zuen beti gure izateari buruz, eta bere jarraitzaile izan nahi badugu, gure misioa betetzearen gurutzea eramateko beharraz. Baina minaz eta sufrimenduaz hitz egin zuenean, hauek azken hitza ez dutela ere erakutsi zigun. Azken hitza bizia, piztuera, amaierarik gabeko zoriona dira. Askotan, Jesusen irakaskuntza horietaz ahazten gara, edo, bestela, etsiarazi eta itxaropena galtzen dugu ezinean murgilduta gaudenean; edo fatalismoz bizi dugu zailtasuna jasan beharra.

2. Jainkoak gure giza izaera ezagutzen du eta, horregatik, bizitzaren bidean, etorkizuneko zoriontasun hori aurrez ezagutzeko aukera ematen digu. Hori da antzaldatzearen zentzua. Antzaldatzearen bidez, minaren eta sufrimenduaren bidearen amaiera izango zena ikasleek ezagutzea nahi izan zuen Jesusek. Era berean, ulertarazi zien esperientzia hori izan ahal izateko Berarekin bat egin da bizi behar dugula, Beraren hitzak entzun eta praktikan jarritz. Eta hori otoitzean egiten dugu. Jesus otoitzean antzaldatu zen. Berarekiko elkarrizketan (otoitzean) ari garenean ikasten dugu gurutzearen bidez iristen garela argia ikustera. Han izan ditzakegu, gainera, gure konfiantza eta itxaropena berrituko duten eta beldurra desagerraraziko diguten antzaldatze-uneak.

3. Antzaldatzearen ondoren, Jesus bere bidera itzuli da, kalbariora daraman bidera. Ikasleak adoretu ditu, bidean jar daitezzen beldurrik izan gabe eta esperientzia pozgarri hori oroimenean gorde dezaten. Batez ere, Jesusi begiratzera gonbidatuak dira. Gure bizitzan denok ditugu antzaldatze-uneak: Jainkoaren gertutasunaren presentziaren esperientziak; senidetasun- eta elkartasun-esperientziak. Horietan, aipatu dugun erabateko eta behin betiko zoriontasuna aurrez goza dezakegu. Egoera horietatik indarra, adorea eta itxaropena atera behar dugu egoera zailei aurre egiteko; izan ere, estualdiak, etsipenak eta itxaropen-ezak etorkizuna hobe bati atea ixten diotela dirudi. Otoitzean eskaintzen dizkigu Jaunak antzaldatze esperientziak, gure bidea argitzen dutenak eta gure misioa betetzen jarraitzeko adorea ematen digutenak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok gure egintzen epaile den Aita errukitsuari eta gure bihotzen ezkutukoena ezagutzen dituen Jainkoari eta damu-espirituz eska diezaiogun entzun dezala bere herriaren otoitza:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Jainkoak eman diezaiela bere senideei Garizumako egun hauek egiazko penitentzia-jarreraz bizitzea eta barkamenaren sakramentua oparo ospatzeko prestatzea. Egigun otoitz. ℞.

—Onbidetik urrundu eta bekatuagatik hil direnak, bizi daitezela Garizuma honetan Jainkoaren Semearen ahotsa entzunez. Egigun otoitz. ℞.

- Ondasunak dituztenei, Jainkoak eskuzabaltasun jarrera eman diezaiela eta lurreko ondasunak denon onerako ugari ditzala. Egigun otoitz. *℟*.
- Garizumako penitentzialdiak ondasunekiko gure gehiegizko jarrera zuzen dezala eta gure espiritua sendotuz betirako diren ondasunetara begira jarri. Egigun otoitz. *℟*.

Jainko Jauna, Israelgo gure arbasoak federa deitu zenituen eta gu Ebanjelioaren argiaz argitu gaituzu; entzun itzazu, arren, gure eskariak eta ireki gure belarriak, zure Semearen ahotsa entzunez eta gurutzearen misterioa onartuz zure erreinuaren aintza iritsi dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa

Garizumako II. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 168. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, eskaintza honek garbi gaitzala geure bekatutik eta santu egin ditzala zure fededunen gorputz-arimak, pazko-jaiak ospatzeko gai izan daitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Misterio aintzagarriak hartu ditugunok eskerrak ematen dizkizugu, Jauna, lur honetan gaudela ere zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinkatu, Jauna, etengabe zeure fededunak
betiereko bedeinkapenez, eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari atxikirik bizi daitezela,
hark Apostoluei erakutsi zien aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskura dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 12an
GARIZUMAKO III. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako bidean aurrera, Eukaristiako mahaian bildu gara gure fedea elkarbanatu eta salbamen iturritik edatera.

Gure fedea indarra behar du, betirako asetzen duen ura. Hortik datoz gaurko gizon-emakumeon egarriak, Jainkoaren egiazko esperientzia egin nahi dugunon egarriak. Eta, gaur, Jesusek betiko asetzen duen ura hitz ematen digu Ebanjelioaren poza zabaldu nahian gabiltzanoi. Hurbil gaitezen Eukaristiaren iturri-ondora eta onar dezagun Jesusen ur bizia.

Damu-otoitza

Ospakizun hau hastean, eska diezaiogun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

—Jesus Jauna, gizadiaren salbamena gurutze-habeen **ezarri** zenuena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, / gugatik nekaldia **jasan** zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu, bekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitezen / gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eram**an** zenituen: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟̄.** Amen.

Otoitza

Jainko errukitsua, on guztien iturria,
 baraua, otoitza eta erruki-egintzak
 ipini dizkiguzu geure bekatuen sendabide;
 begira bihotz onez geure ahuleria aitortzen dugunoi
 eta bizkor gaitzazu zeure erruki handiaz
 bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizitzan sufritzen ditugu zailtasunen aurrean, askotan galdetzen
 dugu Jainkoa gure alde ote dagoen. Hori gertatu zitzaion askatasun
 bidean zihoan Itunaren herriari. Jesusekin benetan topo egiten
 badugu, konturatuko gara, Bera dela gure nekeen artean atsedean eta
 bizi-emaile.

Lehenengo irakurgaia (Jr 3, 17, 3-7)

Irteera liburutik

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marmarka ari
 zen: «Honetarako atera al gaituzu Egiptotik, gu, gure seme-alabak
 eta abereak egarriz hiltzeko?» Moisesek deiadar egin zion Jaunari:
 «Zer egin behar dut nik herri honekin? Harrika emango didate
 laster».

Jaunak erantzun zion Moisesi: «Jar zaitetz herriaren aurrean eta
 eraman zeurekin herri-arduradun batzuk. Hartu eskuan Nilo ibaia
 jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Han zeure aurrean izango

nauzu Ni, Horeb mendiko harkaitz gainean. Harkaitza jo eta ura sortuko da handik, herriak edan dezan».

Hala egin zuen Moisesek Israelgo arduradunen aurrean. Toki hari Masa eta Meriba, hau da, Tentaleku eta Auzileku, ezarri zion izena, han berari aurpegi eman eta Jauna tentatu zutelako, esanez: «Gure artean dago Jauna, bai ala ez?».

Erantzun-salmoa (Sal 95 [94], 1-2. 4-7c. 7d-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na - ren min - tzo -
a: "Ez go-gor - tu zu-en bi-ho - tza".

- ∞. Zatozte, degiogun poz-oihu **Jaunari**,
poz-irrintzi, salbatzen gaituen hark**kaitzari**.
Aurkez gakizkion eskerrak **emanez**,
degiogun jai txaloka eta **kantari**. ∞.
- ∞. Zatozte, gurtu dezagun ahus**pezturik**,
belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **aurrean**.
Bera baita gure Jainkoa, ' eta gu hark larraturiko **herria**,
haren zainpeko art**al**dea. ∞.
- ∞. Entzungo ahal duzue gaur haren **ahotsa**:
«Ez gogortu bihotza Meriban **bezala**,
Masako egunean basamortuan bezala, '
tentatu egin baininduten zuen gur**asoek**,
probatu, Nik eginak ikus**i** arren». ∞.

Bigarren irakurgaia (Erm 5, 1-2. 5-8)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, bakean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sinesmenaren bidez eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez.

Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea.

Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna..

Ebanjelio-aurreko gorapena (lk. Jn 4, 42. 15)



Ÿ. Jauna, Zu zara egiaz munduaren Salbatzailea;
emadazu ur hori, berriro egarritu ez nadin. R.

Ebanjelioa (Jn 4, 5-42 edota, laburrago Jn 4, 5-15. 19b-26. 39a. 40-42)

Homiliarako argibideak

1. Ura bizi-iturri den elementu naturala da. Urik ez dagoen tokian ez dago bizirik. Urak garbitu egiten du, eta egarria ere kentzen du. Batzuetan, bidetik atera eta gainezka egiten du eta dena suntsitzen du. Ura sinbolo oso erabilia da Itun Berrian, bereziki Joanen ebanjelioan. Espirituaren eta biziaren zentzua bilatzearen sinboloa da. Egia ezagutzeko egarria dugu, gauzen zergatia ulertzeko egarria. Gaur egun, mundu nahastu batean bizi gara, ideologia kontrajarriekin, hutsune existentziala bizi duen jendearekin; egarriaren sinboloarekin adieraz dezakegun mundu batean bizi gara. Batez ere, denetik eta ugari duten pertsona asko ez daude gustura, eta batzuetan suizidiora ere iristen dira. Egarriz hiltzen da bat, giza bihotzaren nahiak asetzen dituen urik ez duenean.

2. Gaurko ebanjelioa uraz mintzo zaigu. Jesusek, egarria kentzeko ur naturaletik, egarria behin betiko kentzen duen beste ur batera eramaten du samariarra: betiereko bizia emateko gai den ur bizia eskaintzen dio; egarria behin betiko kentzen duena eta beste pertsona askorengana iristen den iturburu bihur daitekeena. Ur hori da, funtsean, Erreinoa iragartzea da, Jainkoak gizadiarentzat duen proiektua, gu berekin lankide izanez eratu nahi duena. Jesusek, bereziki, Jainkoaren irudi berri bat eta Jainkoarekin harremana izateko modu berri bat eskaintzen digu. Ez dago leku bati edo egitura batzuei lotuta. Espirituz eta egiaz egiten da. Hau da, Espirituaren gidaritzapean eta egia den Kristoren irakaspenei jarraituz. Egia horrek, hain zuzen, aske egiten gaitu, biziaren eta heriotzaren zentzua ulertarazten digulako; orainarena eta etorkizunarena; gurutzearena eta sufrimenduarena.

3. Betiereko bizira jauzi egiten duen iturburu bihurtzen den ura edan nahi badugu, salbamenaren Berri Ona entzun behar dugu, sinetsi eta praktikan jarri. Baina, batez ere, Jainkoa espirituz eta

egiaz gurtzeko deia jasotzen dugu, otoitza delarik horretarako bidea, maita gaituen Jainkoarekin maitasunezko elkarrizketa izanez. Ebanjelio pasarte hau oso gogoko zuen Santa Teresak Jauna aurkitzeko ibilbide bikaina ikusten zuen. Berak beti eskatzen zion ura Jesusi. Berarengan sinetsiz “gure baitan ur bizia darien iturriak” sortuko zirela esaten zuen. Espiritua da iturri hori. Espirituaren gidaritzapean, aseko dugu giza izatearen zentzua ulertzeko dugun egarria, eta gainerakoei jakinarazi ahal izango diegu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Basamortuan otoitzari emana bizi izan zen Jesus gure Jaunaren ereduari jarraituz, egiogun otoitz guk ere aspergabe Jainkoari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

- Fededun guztiak, Garizumako penitentzia eta ekinaldien bidez, beren erruetatik garbituak eta kristau bizitzan sendotuak izan daitezela. Egigun otoitz. ☩.
- Herri guztiek iris dezatela beharrezko bakea baretasuna eta ongizatea, era horretan zeruko ondasunak errazago bila ditzatela. Egigun otoitz. ☩.
- Jaunak eman diezaiela, tentatuak edo minduak direnei indarra, bekatariei bihotz-berritzeko gogoia eta triste eta atsekabetuta daudenei barne-poza. Egigun otoitz. ☩.
- Jaunak bihotz-berritzeko egiazko gogoia gudan sorraraz dezala, pazko-sakramentuak ospatzeko behar bezala presta gaitzen. Egigun otoitz. ☩.

Aita errukiorra, Zuk ez dituzu zeure seme-alabak sekula eskutik uzten, baizik eta Zure izenaren aintza agertzen diezu; entzun gure otoitzak eta egizu, Zure erakutsiak haurren xalotasunez onartu eta egiazko bihotz-berritzearen fruituak eman ditzagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa

Garizumako III. igandeak prefazio berezia du A urtean, Meza liburuko 178. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Jaun errukitsua, sakrifizio honek irits diezagula, zure barkamena eskatzen ari garenoi, geure senideei barkatzen jakiteko grazia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko salbamenaren agiria da, Jauna, lur honetan jadanik, hartu dugun zerutar ogia; egizu, orain sakramentuz ospatu duguna egintzetan bete dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.
(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Gida ezazu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta eman errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̄.* Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟̄.* Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟̄.* Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 19an
GARIZUMAKO IV. IGANDEA

Gure Elizbarrutien misioak

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako laugarren igande honi «laetare» igandea deitu izan zaio: alaitasunaren igandea, gertu dagoelako jada Pazko jaia. Otoitz sutsuagoa egiteko deia egiten zaigu: Jesusen eginkizuna da eta, beraz, bere jarraitzaileona ere bai, gizaki guztiei era beteagoan bizitzeko aukera aurkeztea; hitzez baino gehiago, bizi dutenaren testigantzas eta salbamena gertarazten duten ezaugarrien bidez.

San Joseren festaburua bihar ospatuko badugu ere, Elizbarrutien misioetarako otoitza eta diru-bilketa gaur dugu «**Mundura zabalik**» goiburuarekin. Misiolariak bidaltzeko indarrak ahuldu bazaizkie ere, gure elizbarrutiek ezin dute inolaz ere galdu elizan misiolari-izaera. Gure eskuzabalez laguntzeko aukera izango dugu.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeko.

- Jesus Jauna, onginahi hutsez sal**bat**zen gaituzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zure graziaz aber**rasten** gaituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea era**kutsi** diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, zure Hitzaren bidez
miragarriro adiskidetu zenituen gizon-emakumeak Zeurekin;
egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Argiaren seme-alaba bezala ibiltzea da kristauei eta gogo oneko gizon-emakume guztiei dagokiena. Horretarako, beharrezkoa da begiekin bakarrik ez, baizik eta bihotzarekin ere begiratzen ikastea. Gaurko irakurgaiek argia emateko fedea duen indarra azpimarratzen dute.

Lehenengo irakurgaia (*1 Sm 16, 1b. 6-7. 10-13a*)

Samuel lehenengo liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Samueli: «Bete adarra olioiz eta zoaz. Betleemgo Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeen artean begiz jo baitut nire errege izango dena».

Iritsi zenean, Samuelek Eliab ikusi eta esan zuen bere baitan: «Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere gantzutua». Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxurari eta luzerari, alde batera utzia dut eta. Jainkoak ez dio begiratzen gizakiek begiratzen diotenari, gizakiek itxurari begiratzen baitiote; Jainkoak, berriz, bihotzari».

Jesek bere zazpi semeak eraman zituen Samuelen aurrera; baina Samuelek esan zion: «Jaunak ez du horietatik inor aukeratu». Orduan, Samuelek galdetu zion Jeseri: «Hauek al dituzu seme guztiak?» Hark erantzun: «Txikiena gelditzen da; artzain dabil». Samuelek esan zion Jeseri: «Agindu ekartzeko; ez gara jaten hasiko, hura etorri arte». Ekarrarazi zuen, beraz, mutila: ile-gorria zen, begi-ederra, itxura bikainekoa. Jaunak esan zion Samueli: «Jaiki eta gantzu ezazu; horixe da».

Hartu zuen, bada, Samuelek olio-adarra eta gantzutu egin zuen bere anaien aurrean. Egun hartan Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen eta haren jabe izan zen aurrerantzean.

Erantzun-salmoa (Sal 23 [22] 1-3. 4. 5. 6)

Jau - na dut ar- tzain, ez naiz e- ze - ren be - ha-rre - an.

- ∞. Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean;
larre gurietan etzanarrazten nau,
ur-bazter lasaira eramaten ‘
eta indarrak dizkit berritzen;
bide segurutik narama, ‘
bere izenari ohore eginez. ℞.
- ∞. Ibar beltz ilunean banabil ere,
ez naiz gaitzaren beldur,
Zu nirekin baitzaude;
zure artzain-makilak lasaitzen nau. ℞.



- ∅. Mahaia atontzen **di**dazu
etsaien **be**gi-bistan;
olioz gantzutzen didazu **bu**rua,
gainezka dut **ed**ontzia. ∅.
- ∅. Zoriona eta maitasuna di**tut** lagun,
bizitzako egun **gu**ztietan,
eta Jaunaren etxean bi**zi**ko naiz
amaigabeko **egu**netan. ∅.

Bigarren irakurgaia (Ef 5, 8-14)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Garai batean ilunpe zineten; orain, berriz, argi zarete Jaunari esker. Zabiltzate, beraz, argiaren seme-alabei dagokienez; on izatea, zuzentasuna eta egia dira argiaren fruituak. Aztertu zer zaion Jaunari atsegin eta ez parte hartu ilunpean bizi direnen egintza hutsaletan; sala itzazue baizik, lotsagarria baita horiek ezkutuan egiten dutena aipatzea ere. Baina argiak salatzen duen guztia agerian gelditzen da, eta agerian gelditzen dena argi bihurtzen da.

Horregatik esan ohi da: «Esna zaitetz, lo zauden hori, jaiki hilen artetik, eta Kristok argituko zaitu».

Ebanjelio-aurreko gorapena (lk. Jn 8, 12)





∞. Ni naiz munduaren argia, dio Jaunak;
Niri jarraitzen didanak izango du bizirako argia. ∞.

Ebanjelioa (*Jn* 9, 1-41 edota, laburrago *Jn* 9, 1. 6-9. 13-17. 34-38)

Homiliarako argibideak

1. Ikusmenari esker, munduaren errealitatea ikus dezakegu, objektuak bereizi, gauden tokietan segurtasuna izan. Aldiz, itsutasuna dutenak mugatuta daude, eta ez dute beste zentzumenekin hautematen dutena bere osoan sumatzen. Antzeko zerbait gertatzen da gugan, gure biziaren zentzuaz, gizarteaz, munduan gertatzen denaz, balioez eta kontrabalioez dugun ideiarekin. Itsu egon gaitezke, iritziak, ideologiak eta ikuspuntuak kritikoki aztertu gabe jokatuz, edo miopia intelektuala eta bistako beste gaixotasun batzuk ere izan ditzakegu, gure izateari eragiten dioten errealitate horiek –bereziki heriotzaren aurrean nola kokatzen garen– era osoan ulertzea eragozten digutenak.

2. Joan zen igandean Jesus biziaren ur gisa aurkeztu zitzaigun. Gaur, berriz, munduaren argizat agertzen zaigu, gure itsutasuna sendatzen duen eta giza bizitzaren misterioa beste era batera ikusteko aukera ematen digun argizat. Ikusmena emanda, gure Jainkoaren seme-alaben duintasuna eta Berarekin bat eginda bizitzeko deia ulertzen laguntzen digu. Adimenaren begiak irekitzean, munduan kokatu gaitezke, eta bertako errealitateak interpretatzeko gakoa ematen zaigu. Gure betiko etorkizuna kontuan hartzen duen ikuspegitik, gertaerak erlatibizatzen eta aurkezten diren erronkei aurre egiten jakiten laguntzen digute adimenaren begiek. Ez hori bakarrik. Jesusek Berari jarraitzera gonbidatzen gaitu, eta fedearen begiak zabalduz gure bidearen

iluntasuna argitzen du. Horri esker, aurrera egiten dugu, eta gure anai-arreben begiak irekitzeko eta Kristogandik jasotzen dugun argiaren berri emateko konpromisoa har dezakegu.

3. Eskerrak eman behar dizkiogu Jainkoari, ez soilik ikusmen fisikoagatik, baizik eta, batez ere, fedearen dohainagatik, horrek sendatzen baikaitu errealitatea bere benetako dimentsioan ikustea galarazten digun itsutasunetik, edo erdizka ikusarazten digun eta oker jardutera garamatzen miopia espiritualetik. Iluntasuneko mundu batean murgilduta gaude. Teknologia- eta zientzia-aurrerapenek ez dute jakintza osoa biltzen; batez ere, ez diete erantzun argitzaile eta egokia ematen gizakiaren funtsezko galderei: Zer da zorientasuna? Nor naiz ni? Mundua kasualitate baten ondorioa da? Zein da nire etorkizuna? Komunikabideek eta ideologiek galdera horiei erantzuna eman eta argitu nahi dituzte, baina egiten duten gauza bakarra galdera horiek are gehiago iluntzea da. Kristauak garen aldetik, Kristo munduaren argia dela esan behar dugu, injustizien, zapalkuntzen, gorrotoen, zatiketen, giza duintasunaren eta gure betiko etorkizunaren kontzientzia hartzen laguntzen diguna. Bizitzaren ikuspegi kristauak egungo itsutasuna gainditzen laguntzen du, mundua menderatzen dutenek itsutasunean nahi bagaituzte ere.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitza Jaunari, ez baitu nahi bekatariaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Jaunak sendo ditzala Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak eta beraien erruen egiazko damua iristen lagun diezaiela. Egigun otoitz. *R*.
- Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzala egia ezagutzera irits daitezten, beraien bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten. Egigun otoitz. *R*.
- Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitezen. Egigun otoitz. *R*.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak irits gaitzela gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. *R*.
- Errukian aberatsa zaren Jainkoa, barkamen besarkadaz onartzen dituzu damaturik zugana itzultzen direnak; entzun gure otoitzak eta gure bekatuak barkaturik jantzi gaitzazu eztai-soinekoz, pazko-otorduan parte hartu ahal izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R*. Amen.

Prefazioa

Garizumako IV. igandeak prefazio berezia du A urtean, Meza liburuko 188. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Pozik eskaintzen dizugu, Jauna, betiko sendabide den oparia, eta apalki eskatzen:

ospa dezagula begirunez eta eskaini munduaren salbamenerako.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
 argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,
 Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan
 eta Zu benetan maita zaitzagun.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,
 indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz
 herio-ilunpean dabiltzanak,
 gaitz guztietatik bihotz onez aterata,
 ondasun gorenak eskura ditzaten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Oroitarazi jendeari, San Jose eguna biharko egunez, Martxoaren 20an ospatzen duela eliza.

Martxoaren 26an
GARIZUMAKO V. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako azken igandea dugu gaurkoa, datorren igandean hasiko baitugu, Erramuekin, gure fedearen ASTE NAGUSIA. Jesus, Jerusalemera gerturatzen ari da eta berarekin darama Eliza osoa, historiaren une erabakigarria: bera da Jainkoaren Semea, bizia ematera mundura etortzekoa zena.

Goazen gu ere Jesusekin. Elkar onartuz, inor gaitzetsi gabe, denean maitasuna eta bihotz ona agertuz.

Damu-otoitza

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

—Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen **zaren** Senidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu bizi-araziz goretsia **zaren** Jainko-Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztuera eta Bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko gure Jauna, zure Semeak
bere bizia emateraino maite izan zuen mundua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Behar dugu hitz kontsologarriak entzutea. Sarritan mugatuak, eroriak, tristetuak, hondoratuak senti gaitezke... eta behar dugu entzutea «Ni naiz piztuera eta bizia», «nire espiritua emango dizuet eta biziko zarete». Gaurko irakurgaiak, laguntza eta bultzada ditugu fede bidean.

Lehenengo irakurgaia (Ez 37, 12-14)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zeuen hilobietatik, ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango.

Eta zuen hilobiak ireki eta horietatik ateraraziko zaituztedanean, ene herri, orduan jakingo duzue Ni naizela Jauna. Neure espiritua ezarriko dut zuengan, eta biziberrituko zarete. Zeuen lurraldean ezarriko zaituztet, eta jakingo duzue, Nik, Jaun honek, esandakoa bete egiten dudala». Hala dio Jainko Jaunak.

Erantzun-salmoa (Sal 126 [125], 1-2b. 2c-3. 4-5. 6)



Jau-na-gan da-go e-rru-ki-a, Ha-ren-gan as-ka-ta-sun u-ga-ri-a.



- ∞. Barren-barrendik dei egiten **dizut**, Jauna;
entzun, Jauna, nire **mintzoa**!
Beude erne zure **belarriak**
nire erregu-**oihura**. R̃.
- ∞. Erruak kontuan badituzu, Jauna,
nork iraun zutik, **ene** Jauna?
Baina Zuri barkamena **dagokizu**,
Zuganako begirunean bizi **gaitezen**. R̃.
- ∞. Jaunaren zain nago, zain dago nire **barrena**,
haren hitza dut **itxaro**;
nire barrena Jaunaren irri**kaz** dago,
gauzaina egunsentiaren irrikaz baino **gehiago**. R̃.
- ∞. Gauzainak egunsentia bezala, '
itxaron beza Israelek **jaunagan**,
Jaunarena baita maitasuna, '
harena askapen **betea**.
Hark askatuko du **Israel**
bere erru guzti**etatik**. R̃.

Bigarren irakurgaia (Erm 8, 8-11)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Grina txarren menpean bizi direnak ezin izan gogoko Jainkoari. Zuek, ordea, ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hilik egon arren, espirituak badu bizia Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi araziko du zuen gorputz hilkorra ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Jn 11, 25a. 26)



✠. Ni naiz piztuera eta bizia, **di**o Jaunak;
Nigan sinesten duena ez da **betiko** hilko. ✠.

Ebanjelioa (Jn 11, 1-45 edota, laburrago Jn 11, 3-7. 17. 20-27. 33b-45)

Homiliarako argibideak

1. Vatikanoko bigarren Kontzilioak zioenez, giza bizitzaren enigma nagusia heriotza da batetik, eta gizakiak mina eta gorputzaren pixkanakako desegitea jasaten dituela bestetik. Era berean, nabarmendu zuen teknika modernoaren ahalegin guztiek ezin dutela gizakiaren antsietatea baretu, eta bizitza luzatzeak ezin duela giza bihotzetik sortzen den beste "zerbait" horren nahia ase. Heriotzaren gaiari buruzko intelektualen topaketa batean, bere burua ateotzat zuen partaide batek Karl Rahner teologo handiari galdetu zion zer espero zuen bizitzaren amaieran eta nola aurre egiten zion heriotzaren ikuspegiari. Hark erantzun zuen: nik heriotzaren perspektibari aurre egiten diot bakez, Kristoren piztueragatik ziur bainago biziaren betea iritsiko dudala.

2. Garizumaren gailurrera gerturatu eta, Kristoren sufrimendua eta heriotza gogoratzen ditugunean, itxaropenaren ikuspegi hori aurkezten digu, hain zuzen ere gaurko Ebanjelioak. Heriotzak ez du azken hitza, bizia eta piztuerak baizik, Kristok piztuak gure piztuera ziurtatzen duelako. Bera da piztuera eta bizia. Piztuera sinesteak dimentsio berria ematen dio bizi dugun guztiari, eta, batez ere, heriotza begi desberdinez ikusarazten digu. Ez da itzulerarik gabeko bidea edo guztiaren amaiera, bizi betearen hasiera baizik. Kristo berpiztuak irabazi du garaipen hori guretzat, bere heriotzaz gu heriotzatik askatuz.

3. Gaur egungo munduan teoria asko da heriotzaz haratagoko biziak: ezereza, errenkarnazioa, kosmosean xurgatzea. Gu, kristauok, Vatikanoko II. kontzilioa eskatzen digun bezala, Jesus Jaunaren biziaren eta piztueraren lekuko eta Jainko biziaren ezaugarri izatera deituak gara. Piztueraren ziurtasunak sendotu egin behar gaitu Kristok ekarri zigun Berri Ona iragartzeko eta haren aurka dagoen guztia salatzeke, baita bizitza justiziaren, bakearen eta senide izatearen alde lanean emateko ere, mendeetan zehar eta gaur ere hainbeste kristauk egin duen bezala. Hori heriotzaren aurka borrokatzea da, injustiziak gaixotasunak baino pertsona gehiago hiltzen dituelako. Konpromiso horrekin, Kristoren piztueraren lekuko gara, eta berarekin piztuko garelako igartzen dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitza, senide maiteok, eta eska dezagun Jaunaren errukia, bere herriarekiko onginahiz beterik gure eskariak entzun ditzan:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Bere herria biziartzeko bere burua heriotzara eman zuen munduaren Salbatzaileak, Eliza gaitz guztitik libra dezala. Egigun otoitz. *℟*.
- Gurutziltzatu zutenen alde gurutzean otoitz egin zuen munduaren Salbatzaileak, bekatarien alde Aitaren aurrean bitarteko egin dezala. Egigun otoitz. *℟*.
- Gurutzean sufrimendua eta ezina pairatu zituen munduaren Salbatzaileak, sufritzen duten guztiakin erruki izanez indarra eta laguntza eman diezaiela bere minetan. Egigun otoitz. *℟*.
- Egun hauetan Jesusen Gurutze-bidea gurtu eta oroitzeko prestatzen garenok, munduaren Salbatzaileak bere piztueraren garrez indarberri gaitzala. Egigun otoitz. *℟*.

Kristogan mundua berritu nahi duzun Aita, ikus gure ezinak eta Zure Semea mundua salbatzera bidali zenuenez, eta ez kondenatzera, entzun gure otoitzak eta sorrarazi gure bihotzetan bizi-gogoia eta alaitasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa

Garizumako V. igandeak prefazio berezia du A urtean, Meza liburuko 198. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Entzun iezaguzu, Jainko ahalguztiduna, eta egizu, sakrifizio honek garbi gaitzala kristau-sinesmenaz argitu gaituzunok. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, egizu,
 orain Kristoren Gorputz Odolekin bat egin dugunez gero,
 haren gorputzeko atal izan gaitezela beti.
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.
(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka ezazu, Jauna,
 zure errukia itxaro duen zeure herria,
 eta emaiozu bihotz zabalez Zuk argiturik eskatzen duena.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren orde, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Apirilaren 2an
JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

Agurra

Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ✠. Amen.

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Sarrerako oharpena (*Batzarburuak berak*)

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurbil dugu Pazko-jaia. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta piztueraren misterioari, Eliza osoarekin bat eginik hasiera emateko ospakizuna egitera bildu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zen Jauna Jerusalemgo hiri santuan. Ospa dezagun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroitzapena, eta jarrai diezaiogun geure Jaunari, grazia lagun dugula haren gurutzean bat eginda, haren piztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen otoitza

Ondoren eskuak bildurik otoitz hauetako bat egingo du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
bedeinka itzazu + erramu-adar hauek;
eta egizu, Kristo Erregeari
goraka eta kantari jarraitzen diogunok,
haren bidez betiko Jerusalemara heldu gaitetzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Oi Jainko, indar ezazu Zugan uste on dutenen fedea eta entzun bihotz onez gure otoitzak: gaur Kristo garailea erramu-adarrekin gorai patzen dugunok, berarekin bat eginik, egintza onen fruituak eman ditzagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

Ondoren (intsentsua erabiltzen bada liburua lurrinduz) Ebanjelioa hots egingo du.

Ebanjelioa

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik (21, 1-11)

Jerusalemera hurbildu zirenean, Oliamendi ondoko Betfage herrixkara iritsirik, bi ikasle bidali zituen Jesusek, esanez: «Zoazte aurreko herrixka horretara; berehala asteme bat aurkituko duzue lotua, eta astakumea harekin; askatu eta ekarri Niri. Eta inork ezer esaten badizue, erantzun: “Jaunak behar ditu, baina berehala itzuliko ditu”».

Hori gertatu zen Jainkoak profetaren bidez esana bete zedin: «Esan Sion hiriari: “Hara, badatorkizu zeure erregea, apal eta asteme baten gainean, zamari baten kumearen gainean”».

Joan ziren, bada, ikasleak eta Jesusek agindu bezala egin zuten; ekarri zituzten astoa eta astakumea, eta beren jantziak bizkarrean ezarri zizkieten, eta Jesus gainean eseri zen. Jende askok bere jantziak zabaldu zizkion bidean; beste batzuek, berriz, zuhaitzei adarrak moztu eta bidean hedatzen zituzten. Aurretik eta ondotik zihoan jendeak hau zioen oihuka: «Hosanna Daviden semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Hosanna Goi-goikoari!»

Jesu Jerusalem sartu zenean, hiri osoak, harriturik, galdetzen zuen: «Nor dugu hau?» Jendeak erantzuten zuen: «Hau Jesus profeta da, Galileako Nazaretekoa».

Prozesioa

Ohargileak prozesiorako gonbidapena egin dezake hitz hauekin:

Erramu-adarrak eskuetan ditugula, Jesus goretsi zuen jendearen antzera, lagun diezaiogun guk ere Jaunari, pozez kantari.

Damu-otoitza

Prozesiorik eta Sarrera Nagusirik egin ez denean bakarrik. Herria agurtu eta Damu-otoitza egingo da, eta ondoren kolekta-otoitza.

«Pazko festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalem sartzean, bidera atera zitzaizkion haurtxoak, palmadarrak eskuetan zituztela eta pozez oihuka: Hosanna zeru goienetan! Bedeinkatua Zu, erruki handiz gugana zatozen Hori!».

Jo dezagun guk ere Jaunarengana, eta eska diezaiogun Bere errukiz berri gaitzala Aste Santuaren hasiera honetan.

- Jesus Jauna, bekaturik izan ez arren geure bekatuen zama **hartu** zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure bekatuen barkamenarako gurutzean odola **isuri** zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, hilenartetik piztuz heriotza **garaitu** zenuena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. \mathcal{R} . Amen.

Otoitza

Aldarera iritsi eta agurtu ondoren, jarlekura joango da eta otoitza esango du:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
 gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
 gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
 egizu, arren, har ditzagula gogoan
 haren nekaldiko irakaspenak,
 haren piztueran parte izan dezagun.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizia ematen dakien Jainkoaren irakaspenak gure itxaropena arnasberritzen du. Beheratzen dakiena gertatuko da gizadiaren altxagarri eta heriotzatik piztuerara igarotzeko bide. Bera hitzak sendotzen gaitu.

Lehenengo irakurgaia (*Is 50, 4-7*)

Isaias profetaren liburutik

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza esateko.

Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Erantzun-salmoa (*Sal* 22 [21] 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24)

Ni - re Jain - ko - a, nun zau - de Zu? No - la es - ku -
tik u - tzi nau - zu.

- ∞. Ikusten nautenek burla egiten **di**diate, ezpainak okertuz, buruari **era**ginez: «Jaunagana jo du, libra **de**zala! Salba dezala, hainbeste maite badu». ∞.
- ∞. Zakur-taldeak nau **ing**uratzen, gaizkile-multzoak **er**dian hartzen. Esku-oinak zulatu diz**ki**diate, hezur guztiak zenbatu **di**tzaket. ∞.
- ∞. Nire jantziak banatzen **di**tuzte, nire soinekoa zotz **eg**iten. Baina Zu, Jauna, ez **egon** urrun! Ene indar, zatoz laster ni **lagun**tzera. ∞.
- ∞. Iragarriko diet zure izena neure senideei, ' goretziko zaitut batzarraren **er**dian. Goretzazue Jauna, begirune dio**zu**enok; ospa ezazue, Jakoberen ondorengo **guz**tiok, izan haren beldur, Israelen seme-**a**labok. ∞.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 2, 6-11)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gaisetarik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurlean eta lurpean, eta mingain guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Flp 2, 8-9)

Je - su - kris - to gu - ri min - tza, ar - gi gu - re bi - ho - tza.

Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.

Horregatik Jainkoak goratu **egin** zuen,
eta izen guztien gaineko izena **eman** zion. ℞.

Ebanjelioa (Mt 26, 14–27, 6 edota, laburrago Mt 27, 11-54)

Homiliarako argibideak

1. Sufrimendua norberaren bizitzan eta munduan dagoen errealitatea da. Bere ikurra gurutzea da. Horren aurrean askotan galdetzen diogu geure buruari: zergatik? Erantzunik gabe. Batzuetan ulertezina iruditzen zaigu; beste batzuetan etsipenez edo jarrera fatalistaz hartzen dugu. Ez gara konturatzen gurutzeak ez dizkigula

Jainkoak bidaltzen, baizik eta giza maltzurkeriaren ondorio direla eta gaindi daitezkeela: marjinazioaren, miseriaren, injustziaren, giza eskubideen urraketaren gurutzeak. Kasu horietan, kausa horiei aurre egin beharko litzaieke. Sufrimenduaren gurutzea ere bada, sufrimenduaren aurka borrokatzeko. Azkenik, errugabeen oinazearen gurutzea dago, eta haren aurrean isildu eta misterioaren aurrean makurtzen gara.

2. Kristoren nekaldiak, bizitzaren gurutzeak ulertu nahi ditugunean murgiltzen garen kalezulotik ateratzeko interpretazio-giltzarri bat ematen digu. Hor sartzen gara bizitzaren gurutzeak giza ikuspegitik bakarrik ulertu eta interpretatu nahi ditugunean. Jesusek bere gain hartu zuen Bere irakaspenen ondorioz jasan behar izan zuen kalbarioko sufrimendua. Berak giza duintasuna, justizia eta maitasuna errespetatzea eskatzen zuen giza harremanetan, miseria eta zapalkuntza pairatzen dutenekiko elkartasuna. Gainera, piztuerarekin, sufrimenduak eta heriotzak azken hitza ez dutela erakutsi zigun. Azken hitza biziak eta piztuerak dute. Aldi berean, Jesusek ulertarazten digu ezin garela axolagabeak izan besteen gurutze-bideen aurrean, batez ere giza maltzurkeriatik datozenen. Beraz, Berak bezala, sufrimendua eta injustizia sakon ulertzen ditugu, eta ahal den neurrian gutxitu eta desager daitezen lan egiteko deia jasotzen dugu. Jesusen heriotza salbamen iturri da gizaldi guztientzat, eta argira gurutzearen bidez iristen garela ulertarazi digu.

3. Guk, era batera edo bestera, gurutze txikiak edo handiak eraman behar ditugu. Pertsona gisa hazteko eta heltzeko bideak dira. Sufritu ez duenak ezin du sufritzen duena ulertu eta ezin du berarekin bat egin. Zergatik gertatzen diren, zer egin dezakegun edo zer egin behar dugun pentsatu behar dugu jendearen gurutze-bideen aurrean. Horretarako, Kristori begiratu behar zaio. Berak sufritu egin

zuen eta larritu egin zen sufrimenduaren aurrean, eta gure beldurrak eta ezinak ulertzen ditu. Aldi berean, ulertarazi zigun maitasunak norberaren sufrimendua ahazten eta besteen sufrimenduengatik kezkatzen irakasten duela; besteekin solidario izaten irakasten digu maitasunak; munduan min gutxiago egon dadin lan egiten erakusten digu, hori eragiten duten kausei indarkeriarik gabe aurre eginez. Piztuerarekin, sufrimenduaren eta heriotzaren gaineko garaipena bermatuta dagoela jakinez, zailtasun guztiei aurre egiten eta bizitzako gurutzeak onartzen laguntzen digun itzaropena zabaldu zuen guregan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gurutzean Aitari otoitza egin zion Jesus Salbatzaileari eska diezaiogun gure alde eta gizaki guztien alde:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Gurutzean bere erasotzaileen alde otoitza egin zuen Jaunak, izan dezala erruki bekatu egin dutenentzat, eta adiskidetzearen bidetik eman diezaiela barkamena eta bakea. Egigun otoitza.
- Jesusen eskaintza izan dadila lagungarri ezjakintasunak, gogorik-
ezak, gaiztakeriak edota tentaldi orok Jainkoagandik urrundu dituenentzat. Egigun otoitza.
- Gurutzean bakardaderen tristura eta garratzasuna nozitu zituen Jaunak izan dezala kupida gaixoekin, atsekabetuekin eta zapalduekin, eta gure bihotzak ere horiei begira jar ditzan. Egigun otoitza.

—Lapur ona paradisuan hartu zuen Jaunak, eman diezagula guri ere bihotz-berritzeko gogo eta har gaitzala egun batean bere bakezko erreinuan. Egigun otoitz.

—Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak irris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. ✠.

Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure Semea mundura bidali zenuen, bere nekaldiaz bekatua eta heriotza suntsitu eta bere piztueraz bizitza eta zoriontasuna guri eskuratzeko; entzun zeure herri honen otoitzak, eta egizu goza ditzagula Jesu Kristoren gurutze aintzatsuaren fruituak. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure barkamena;
eta, zure bihotz onberaz,
emaguzu, haren sakrifizio bakarrari esker, zeure errukia,
geure egintzengatik merezi ez badugu ere
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Prefazioa

Erramu igandekoa, Meza-liburuan 219. or.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zure misterio santuaz indarberriturik otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
sinesten dugun bizi betea itxarotea eman diguzun bezala,
emaguzu, haren piztueraz, bizi hori eskuratzea.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Bukaerako oharra

Bagoaz Jesusen eskutik. Aukera ugari izango dugu aste honetan Kristoren heriotza eta piztuera gertaberritzeko. Ahalegin berezia egin behar genuke guztiok larunbat santu gauean Kristoren Piztuera ospatzera biltzeko. Hori da, dudarik gabe, urteko elizkizun nagusia.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Begira, Jauna, zeure familia honi,
honengatik nahi izan baitzuen Jesu Kristo gure Jaunak
bere bizia gaizkileen eskuetan utzi
eta gurutzeko heriotza hartu.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Edota:

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *℟̄*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Errukiaren Aitak maitasunaren ikasbidea eman dizue
bere Semearen nekaldian;

egin zaitzatela Jainkoaren eta gizakien zerbitzari
eta eman diezazuela

bere bedeinkapenaren dohain miragarria. *℟̄*. Amen.

Kristoren heriotzak

betiko heriotzatik atera zaituztenez gero,
eman diezazuela betiko bizia ere. *℟̄*. Amen.

Kristori maitasun-bidean jarraituz,

izan zaitzela haren lagun piztueran ere. *℟̄*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟̄*. Amen.

Apirilaren 6an

JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusen Azken Afaria, Bere bizitzaren ondorio da: bizitzan egindako zerbitzua eta eskaintza bildu zitueneko eguna. Gurutzean egingo zuena ezaugarri bidez –ogiararen eta ardoaren bidez– agerian jarri zituen. Piztueraren bidez gertatuko zena aurreratu zuen.

Arratsalde honetan, gu, Jesusen ikasle eta jarraitzaileok, berak buru den mahaiaren inguruan biltzen gara Apostoluak gau hartan bezala. Han egin eta esan zuena, Jesusek berak, hemen esan eta egingo du, gure artean, egia eta maitasun berberaz.

Poztu gaitezen Gurutzeko eskaintzaz, Gurutzetik datorkigu osasuna, Gurutzetik gure piztuera eta bizia, Gurutzetik salbamena eta askatasuna.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, zurekin parte izan zezaten ikasleei oinak garbitu zenizkiena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizi gaitezen zerutik jaitsitako biziaren ogia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zure odolaz itun berri eta betikoa eratu duzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. \mathcal{R} . Amen.

Aintza (*bitartean jo daitezke kanpaiak eta txilinak*)

Otoitza

Oi Jainko, zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren sakrifizio berria utzi zion Elizari;
haren maitasun-agiri den Afari santua ospatzera
bildu gaituzu arratsalde honetan;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
bete gaitzala maitasunez eta bizi berriz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. \mathcal{R} . Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko Meza honetan, oso garbi ikusten dugu Meza guztietan gertatzen dena: entzuten dugun Hitzza bete egiten dela ospakizunean bertan, gudan. Gaur herri askatua gu gara, gaur Kristok guretzat ematen du Bere burua, gaur Kristo gure zerbitzari egiten da guk ere gure burua eskaintzen eta guztien zerbitzari izaten ikas dezagun.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 12, 1-8. 11-14*)

Irteera liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe

bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, sutan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaun"».

Erantzun-salmoa (Sal 116 [115], 12-13. 15 eta 16bc. 17-18



Es - ker o - nez - ko ka - li - zak Kris - to - ren o - do - le - an
el - kar - tzen gai - tu.



1. Nola ordainduko diot **J**aunari
 egin didan on **g**uztia?
 Salbamen-edontzia dut al**t**xatuko
 eta Jaunaren izenari dei **e**gingo. 1.
2. Mingarri zaio **J**aunari
 bere fededunen her**i**otza.
 Zure zerbitzari ezereza **n**aiz, Jauna,
 askatu dituzu nire **k**ateak. 1.
3. Gorespen-oparia dizut es**k**ainiko
 eta Jaunaren izenari dei **e**gingo.
 Beteko dizkiot Jaunari **p**romesak,
 herri guztiaren **a**urrean. 1.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 11, 23-26)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afalondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte. Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Jn* 13, 34)

El-kar mai-ta-de-za - gu - la, Zuk maïta-tu be-za - la.

∞. Agindu berria ematen dizuet, dio Jaunak:
 maita dezazuela elkar,
 Nik maite izan zaituztedan bezala. ∞.

Ebanjelioa (*Jn* 13, 1-15)**Homiliarako argibideak**

Azken Afarikoan Jesusek egin zuena oroitu dugu Ebanjelioan. Liturgiak, geuk ere hori egitea proposatzen digu.

Eta Jesus, oinak garbitzen ari zela, zer pentsatuz ari ote zen? Seguraski hiru bat urte lehenago, bere misio-lana hastear zegoela, Nazaretoko, bere herriko Sinagogan sartu eta liburua eman ziotenean irakurri zuena etorriko zitzaion gogora: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduiei askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Eta, hori bere bizi-programa izan da hiru urtean zehar... eta programa hori zuen esku artean ikasleen taldea bildu zuenean ere... baita lakuari begira Zoriontasunak aldarrikatu zituenean ere: *zorionekoak zuzentasuna bilatzen dutenak, zorionekoak bake-egarri direnak, zorionekoak negar egiten dutenak, zorionekoak nigatik erasotuak direnak*. Eta itsas-ertzeko elkarrizketetan, eta

gaixoekin eta ezinduekin eta gehien sufritzen zutenekin bat egiten zuenean. Eta kultura hartan hain baztertuak ziren emakumeak aintzakotzat hartzen zituenean. Eta zapalduak maitasun bereziz tratatzen zituenean.

Hori guztia gogoan izango zuen Jesusek gau santu hartan ikasleei oinak garbitu zizkienean. Eta horren guztiaren ondorio eta guri biziaren atea zabaltzeko gurutzean bizia ematera zihoala ere gogoan izango zuen.

Ekar dezagun gogora Jesusek Pedrori esan ziona: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Eska diezaiogun Jesusi, bere ogi santua hartzean, hau ulertzeko grazia. Behartsuekiko eta ezinduekiko lehentasuna izateko gaitasuna. "Hau", Jesusen misterioa, ulertzeko grazia. Gogoan izan dezagun Jesusen hitza: «Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue». Egun handia iritsiko da, Pazkoa iritsiko da eta egia bihurtuko da gugan, hau ulertu eta gure bizitza azkenekoen zerbitzura jartzen dugunean.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Kristori, Jainkoaren Gantzutuari, bere eskuetan utzi baitu Aitak guztia, eta eska diezaiogun entzun ditzala gure otoitzak:

Erantzuna: **Elkar maite dezagun egun otoitz.**



- Kristau guztiek jakin dezatela bere ikasleei oinak garbitu zizkien Jaunaren apaltasun ereduari jarraitzen, eta izan dezatela ukatu zuen Pedroren malkoak onartu zituenaren ongina bera. *R̄.*
- Egun hauetan bere zerbitzuaren hasiera oroitu eta beronen promesak berritu dituzten Fernando gure Gotzainaren eta bere apaizen alde; Jesusekin erabat lotuta bizi daitezten emandako hitzarekin leial izanez. *R̄.*
- Sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak batasunean biltzeko bere burua heriotzara eman zuen Jaunak, eman diezaiela egiazko bihotz-berritzea bekatuarengatik edo axolagabekeriarengatik bere Elizatik aldendu direnei. *R̄.*
- Gozainak sagaratu-berri duen salbamenaren olio gantzutuak izango diren gaixoek bizi dezatela Jaunaren babes eta arinduak izan daitezela bere min eta gaixotasunetan. *R̄.*
- Bera beheratzean altxa, Bere burua eskainiz barkamena iritsi, Bere odolez garbitu eta Bere haragiz janaritu gaituen Jaunak, argi ditzala gure buruak gaur gertaberritzen ditugun misterioak ulertu eta maitatu ditzagun. *R̄.*

Jesu Kristo Jauna, oraindik lurrean bizi garela betiereko otorduaren aurrerapen den mahaira deitzen gaituzunez, entzun gure otoitzak eta egizu zure garaipenaren sakramentuak ospatzera biltzen garenok mahaikide izan gaitzela betiereko Pazkoaren mahaian. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. *R̄.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jaunartzea bukatutakoan, aldare gainean utziko da kopoia, hurrengo egunean jaunartzeko ogi sagaratuarekin. Apaizak, jarlekuan zutik, jaunartze ondorengo otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna,
gaur ospatu dugun zure Semearen Afarian
indarberritu gaituzu;
egizu, betiereko mahaian ere ase gaitezela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Sakramentu Santua toki berezira aldatzerakoan

Orain Kristoren Gorputza gordeko dugu, biharko elizkizunean jaunartzeko. Jaunak Eukaristian eman digun dohain paregabea gozatzeko aukera ematen zaigu arrats honetan. Gurtu dezagun fedez Eukaristiaren misterioa. Bihar, (*ordua zehaztu*) bilduko gara Jaunaren Nekaldiaren eta Heriotzaren ospakizuna egiteko.

Apirilaren 7an JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA

Sarrerako oharpena

Ostiral Santu arratsalde honetan, isilean eta otoitzean bilduak gaude, baina ez gara etorri hildako baten hilobi aurrean isilik egotera, Jesu Kristo bizi dela sinesten baitugu. Ez gara etorri saldua, torturatua eta gurutzean josia izan den gizon baten hiletak jotzera, gurutzea garaipen-ikurra baita. Ez gara bildu antzinako istorio batzuk entzutera, Kristoren nekaldia egiazkoa baita.

Kristau elkartea Kristoren heriotza kontatzen digun Jainkoaren Hitza entzutera bildu da, Gurutze salbagarria gurtzera eta bere burua eskaini eta batasunean biltzen gaituenaren Gorputza partekatuz. Otoitz sendoa egin nahi dugu, uste onez eta itxaropenez betea. Bai baitakigu Kristoren heriotza eta piztueratik datorrela gizakion salbamena ere. Isilik eta begirune osoz hasten gara.

Apaiza eta diakonoa –diakonirik bada–, Mezarako bezala gorritz jantzita, aldarera doaz isiltasunean, eta, aldarea agurtu ondoren, ahuspez etzango dira edota, egokiago iritziz gero, belaunikatu; eta une batean isilik otoitz egingo dute. Gainerako guztiak belaunikatu egingo dira.

Gero apaiza, bere laguntzaileekin, jarlekura joango da. Han, zutik dagoen herriari begira eta eskuak bildurik dituela, ondorengo otoitzetako bat esango du, Egin dezagun otoitz deia egin gabe.

Otoitza

Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,
bere odola gugatik isuriz sortu zuen pazko-misterioa;
izan gogoan zeure bihotz ona eta agertu zeure errukia;
egitza santu zeure seme-alabak eta zaindu beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Edota:

Oi Jainko,
 Kristo zure Seme eta gure Jaunaren nekaldiaz ezereztu zenuen
 lehenengo bekatuak gizon-emakume guztiengana
 zabaldutako heriotza;
 egin gaitzazu zeure Semearen antzeko,
 gure izate mugatuak beharturik
 gizaki lurtarraren irudia daramagunok
 zure grazia santutzaileari esker
 gizaki zerutarraren irudia ere eraman dezagun.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

I. HITZAREN LITURGIA

Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren liturgia da elizkizun honen lehenengo zatia. Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna izango da irakurgai nagusia eta Nekaldia ulertzen lagunduko digute aurreko irakurgaiek. Jaunak “bere gain hartu zituen askoren bekatuak” eta “haren esaneko egin direnentzat betiko salbamenaren iturri egin da”.

Lehenengo irakurgaia (Is 52, 13–53, 12)

Isaias profetaren liburutik

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena?

Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargaririk; mesprextatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mesprextatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza bere bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako.

Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Erantzun-salmoa (*Sal* 31 [30], 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25)

Zu - re esku-e - tan dut bi - zi - a, as - ka na - za -
 zu, Jaun haun - di - a.

- ∞. Zugan babesten naiz, Jauna, ‘
 ez nadila behin ere lotsagar**ri** gerta;
 atera nazazu onik, zuzena **baitz**ara.
 Zure eskuetan uzten dut neure **biz**ia;
 aska nazazu, Jauna, Jainko **le**iala. ℞.
- ∞. Iseka-bide bihurtu naiz **etsai**entzat, ‘
 are gehiago auzo**ko**entzat;
 izua sortzen diet ezagunei; ‘
 ni kalean ikusi eta alde egiten **di**date.
 Ahaztua naute erabat, hildakoa **be**zala,
 baztertua, alferreko tresna **be**zala. ℞.
- ∞. Baina nik, Jauna, Zugan dut kon**fi**antza;
 hau diot: «Zu **nire** Jainko».
 Zure eskuan dut neure **zor**ia,
 libra nazazu etsai eta pertsegitzailen **es**kutik. ℞.
- ∞. Erakutsi aurpegi argia zerbitzari honi,
 salba nazazu zeure maita**su**naz.
 Eutsi gogor, **izan** bihotz,
 Jaunagan itxaroten duzuen **guz**tiok! ℞.

Bigarren irakurgaia (*Heb 4, 14-16; 5, 7-9*)

Hebrearren egindako gutunetik

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Ik. Flp 2, 8-9*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∕. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino, ' gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion. ∕.

Ebanjelioa (*Jn 18, 1 – 19, 42*)

Homiliarako argibideak

Egiaren aitorlea

Gugatik eman zuen Jesusek bere burua.

Entzun berri dugun Jesusen eta Pilatoren elkarrizketa hori... beti gertatzen da kuriooa. Errege zara beraz? galdetzen dio Pilatok. Eta erantzuten dio Jesusek: Errege naiz, horretarako jaioa naiz eta horretarako etorria mundura. Egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nire hitza. Eta Pilatok galdetzen dio: Zer da egia?

Ebanjelio zati honetan, Jesusen erantzun zehatzik gabe geratzen gara. Ez dio Pilatori erantzuten. Baina zer da egia, galdera horri, Jesusek askotan erantzun izan dio. Hobeto esan da.. bere bizitzarekin erantzun izan dio: Ni naiz egia, bidea eta bizia...

Egiari aitormen egitera etorria dela esan du Jesusek. Justizia egin nahi die historiako biktima guztiei. Jesusek gizaldi guztietan sufritu duten gizon eta emakume guztiei justizia egin nahi die. Jesus azkenekoen alde ateratzen da. Jesusek ez die bizkar ematen txikiei eta zapalduiei. Jesusek historiako azkenekoak, lehenengo bihurtuko ditu. Horien egiari aitormen egin nahi die. Eta gurutzetik bizia berreskuratzen duenean hori erakutsiko digu.

Bi historia paralelo agertzen dira gaurko Nekaldiaren kontakizunean. Jesus traizionatu duten bi lehenengo: Judas eta Pedro. Biek saldu dute Jesus. Batek 30 txanponetan. Besteak hiru aldiz ukatu duenean, bere burua gordetzearren. Gurutzean, bi gizon Jesusen albo banatan. Batek iseka egiten dio Jesusi; besteak bere erreinura, paradisura eraman dezala erregutzen.

Zer gertatzen da Pedoren eta Judasen artean edota bi lapurren artean? Zer alde dago egoera berdintsuan egonik hain desberdin erantzuteko? Jesusi begiratu diotelako. Jesusi begietara begiratzeko

kemena izan dutelako Pedro eta lapur onak, bekatari izanagatik ere. Eta begirada horretan errukia eta barkamena aurkitu dutelako.

Ez dezagula inoiz beldurrik izan Jesusi begiratzeko. Handia izanik ere gure bekatua; handiak izanik ere ganean daramatzagun kargak. Begiratu Jesusi! Eta hartu gurutzetik ematen digun bizia, arnasa, bizimodu berria, Pazkoaren egun handian jasoko dugun Espiritua.

Espiritu horren baitan nahi dugu bekatuak hil eta bizi berrira piztu. Espiritu horren baitan nahi dugu gure bizi osoa Jesusek lehenengo bihurtzen dituen azkenekoen zerbitzura jarri.

Jainkoaren herriaren otoitza

Une garrantzitsua da Jainkoaren herriaren otoitzarena. Merezi du lasai egitea, adibidez: diakonoak edo ohargileak asmoa jartzen du, isilune bat egiten da (batzarrak "Kyrie, eleison" abes dezake), apaizak otoitza eta batzarrak "amen".



Ky-ri - e, Ky-ri - e, e - lei - son! Ky-ri - e, Ky - ri - e, e - lei - son!

I. Eliza santuaren alde

Senideok, egin dezagun otoitz Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta la-guntza eman diezaiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Kristogan herrialde guztiei agertu diezu zeure aintza;
 zaindu ezazu zeure maitasunaren egintza,
 mundu guztian zabaldurik dagoen zure Elizak
 sinesmenean sendo iraun dezan eta zure izena aitortu.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

II. Aita Santuaren alde

Egin dezagun otoitz Frantzisko gure Aita Santuaren alde: gotzain-mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen dezan. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuk eraten dituzu diren guztiak zeure jakinduriaz;
 entzun bihotz onez gure otoitzak
 eta gorde ezazu maitasunez
 guretzat aukeratu duzun Aita Santua,
 Zuk gidatzen duzun kristau-herriak,
 artzain honen ardurapean,
 aurrera egin dezan sinesmenean.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

III. Eliz zerbitzarien eta maila guztietako kristauen alde

Egin dezagun otoitz Fernando gure gotzainaren alde, eta Elizako gotzain, presbitero eta diakono guztien alde, baita kristau-herri osoaren alde ere. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeure Espirituaz santu egiten duzu
 eta gidatzen Elizaren gorputz osoa;
 entzun eliz zerbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak,
 zure graziari esker, bakoitza bere eginkizunean
 zure zerbitzari zintzo izan dadin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

IV. Kristaugaien alde

Egin dezagun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak hauen gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren atea zabal diezaien, hauek ere, Bataioko uraren bidez be-katu guztien barkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko atal izan daitezen. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Eliza seme-alaba berriz ugaritzen diharduzu beti;
sendo ezazu [gure] kristaugaien sinesmena eta jakinduria,
Bataio-iturriko jaiotza berriaz,
zure seme-alaba ordekoen artean sar daitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

V. Kristauen batasunaren alde

Egin dezagun otoitz, Kristogan sinesten duten senide guztien alde: egiari jarrai diezaioten beren bizitzan eta gure Jaun eta Jainkoak bere Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzan. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzu,
eta bildutakoak zaintzen;
begira bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,
Bataio berak santu egin dituenak
egiazko sinesmenak bat egin ditzan
eta maitasun-lokarriak elkartu.
bat egin ditzan zure Eliza bakarrean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

VI. Juduen alde

Egin dezagun otoitz juduen alde ere, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo hitz egin zion herriaren alde: haren izen santuarekiko maitasunean aurrera egin dezaten beti eta harekiko ituna zintzo gorde dezaten. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Abrahami eta haren ondorengoei egin zenizkien zeure agintzariak;
 entzun errukiz zeure Elizaren eskariak,
 lehenengo aukeratu zenuen herria erospen osora irits dadin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

VII. Kristorengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Kristogan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen-bidean sar daitezten.
(Isilunea/kantua)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 emaezu Kristorengan sinesten ez dutenei,
 zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
 egia osoa ezagutzera iristea;
 guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea,
 eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
 zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

VIII. Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Jainkoa ezagutzen ez dutenen alde: beren kontzientziari zintzo jarraituz Jainkoagana hel daitezten.
(Isilunea/kantua)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
 beti zeure bila ibil daitezten
 eta, Zu aurkiturik, Zugan atsedean izan dezaten;

egizu, mundu honetako neke eta estualdietan
denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinestedunen testigantza,
horrela pozik aitor dezaten
Zu zarela egiazko Jainko bakarra eta guztion Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

IX. Herri agintarien alde

Egin dezagun otoitz herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak horien gogo-bihotzak bere nahiaren arabera gida ditzan, denen bakerako eta askatasunerako. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure eskuetan dituzu
gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak;
begira begi onez herrietako agintariei,
zure laguntzaz mundu guztian izan daitezen
herrien aurrerapena, bake iraunkorra eta erlijio-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

X. Atsekabetuen alde

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbi dezala mundua oker guztietatik, uxa ditzala gaitzak, eman diezaiela ogia gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, hautsi kateak, zaindu bidaiariak, etxeratu bidez dabiltzanak, sendatu gaixoak eta salba ditzala hilzorian daudenak. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 atsekabetuen poza eta nekatuen indarra,
 irits bitez Zugana
 edozein estualditan Zuri deiez daudenen eskariak,
 beren premietan zure errukiaren laguntza lortu izanaz
 poztu daitezten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

II. GURUTZEA GURTZEA

Diru-bilketari oharpena

Egun honetan (derrigorrezkoa ez bada ere) lur santuetarako diru-bilketa egitea ohitura da. Noiz egin asmatzea beste kontu bat. Aurten, Jaunartze-ondoren egitea proposatzen dugu. Oharpen hau egin daiteke:

Ohitura zaharra da Elizan, gaurko egunez diru-bilketa berezia egiteko. Eliza guztietan lehenengoa den Jerusalemgo Elizari laguntzeko. Horixe egingo dugu guk orain, Gurutzea gurtzeko prestatzen garen bitartean.

Gurutzea agertu aurretik oharpena

Gurutzea dugu ospakizunaren erdigunea. Berarengana zuzentzen ditugu gure begiak eta gure bihotzak. Orain, Jesusen gurutzea, Jesus bera gurutziltzatua gurtu behar dugu. Horretarako agertuko dute denon aurrean. Isiltasun eta begirunez, onar dezagun.

Gurutze santua gurtzea

Gurutzea ohi den eran agertu ondoren, musu eman ordeztu, buruarekin ere gurtu daiteke.

III. JAUNARTZE SANTUA

Aldareko oihala jarriko da, eta gainean gorputz oihalak eta Meza Liburua. Ondoren, diakonoak, edota diakonorik ez balitz apaizak berak, gure Jauna

ekarriko du gordeta dagoen sagrariotik aldarera, bide laburrenetik; beste guztiak zutik eta isilik egongo dira. Laguntzaile bik lagunduko diote Jaunari argizari piztuekin, eta argiak aldare inguruan edota gainean uzten dituzte.

Ondoren, Jaunartzeko ohikunea hasiko da aitagurearekin.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme Jesu Kristoren
heriotza eta piztuera dohatsuaz eraberritu gaituzu;
zaindu ezazu gugan zeure maitasunaren egintza,
misterio honetan parte harturik
zure zerbitzari izan gaitezen beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Bukaera

Bihar bilduko gara gaueko (*esan ordua*), pozez Pazko Gaubeila ospatzeko. Ospakizun horrek ematen die zentzua atzoko eta gaurko ospakizunei. Ahalegin gaitezen benetan, bertan parte hartzen. Azkeneko otoitzaren ondoren isiltasun osoan geratuko gara.

Apaizak besoak herriaren gainera luzaturik, beste otoitz hau esango du:

Zure Semearen heriotza ospatu dugu, Jauna,
eta haren piztuera santuaren zain gaude;
bidal gugana zeure bedeinkapen ugaria,
etor bekigu zure barkamena,
emaguzu zeure kontsolamendua,
sendotu gure sinesmena
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Eta guztiak isilik aterako dira elizatik.

Une egokian, aldarea erantzi egingo da berriro.

CELEBRACIÓN COMUNITARIA DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN

Monición de entrada

En la celebración de hoy queremos sentir, y celebrar el gozo de la misericordia de Dios, y nuestro compromiso de conversión personal y comunitaria. Jesucristo nos ayuda a superar nuestro pecado mediante un sincero arrepentimiento de nuestras faltas y actitudes negativas.

Alegrémonos, porque sabemos que Dios nos perdona y la comunidad eclesial nos acompaña en nuestra reconciliación con Dios y con los hermanos.

Comenzamos nuestra celebración cantando.

Canto

«La Alianza nueva» (CLN, n. 253);
o bien: «Sí, me levantaré» (CLN, n. 107).

Saludo y palabras del sacerdote que preside

En el nombre del Padre, y del Hijo, y del Espíritu Santo. R/. Amén.

La gracia y el perdón de nuestro Señor Jesucristo estén con todos vosotros. R/. Y con tu espíritu.

Nuestra vida es como un largo caminar por el desierto... En este caminar muchas veces sentimos sed, sed de perdón y de reconciliación. Sed de felicidad. Sed de Dios. Esta celebración es como un oasis en el desierto, porque en ella nos encontramos con el agua viva del perdón de Dios y de los hermanos. Bebamos y dejemos que la luz de Cristo ilumine nuestra oscuridad.

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

Hasierako oharpena

Gaurko ospakizun honetan, Jainkoaren errukiak ematen digun poza, baita pertsonalki eta elkarte bezala bihotz-berritzeak dakarren poza ere sumatu eta ospatu nahi dugu. Gure erruen eta jarrera ezkor guztien egiazko damuaren bidez, bekatua gainditzen laguntzen digu Jesu Kristok.

Poztu gaitezen, badakigu eta Jainkoak barkatu egiten gaituela eta eliz elkarteak lagundu egiten digula Jainkoarekin eta senideekin ari dugun bihotz-berritzean.

Hasi gaitezen kantari.

Kantua

«Dei egingo dit» (Sarrera kantuak 24. or);
edota: «Basamortuan zehar» (Gora Jainkoa 7, 62. or).

Batzarburuaren agurra eta hitzak

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. R/. Amen.

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta barkamena izan bedi zuekin.
R/. Eta zure espirituekin.

Gure bizitza basamortuan egindako ibilbidea bezalakoa da... Bide horretan sarri nabaritzen dugu egarria, barkamen eta adiskidetze egarria. Zorion egarria. Jainkoaren egarria. Ospakizun hau basamortuaren erdian aurkitzen dugun oasiaren modukoa da, bertan aurkitzen baitugu Jainkoaren eta senideen barkamenaren ur bizia. Edan dezagun eta utz dezagun Kristoren argiak argi dezala gure ilunaldia.

Oración

Oremos.

Todos guardan un momento de silencio.

Padre bueno, aquí estamos tus hijos necesitados de perdón. Muchas veces hemos experimentado la dureza de la vida. Pero muchas veces hemos tratado con dureza a los demás. Hoy, ponemos ante Ti todo lo que somos: nuestros deseos e ilusiones, nuestros éxitos y nuestros fracasos, nuestros pecados y nuestras virtudes. Todo, Señor, lo ponemos ante ti para que Tú lo purifiques y lo transformes en bendición. Por Jesucristo nuestro Señor. Amén.

Primera lectura

Ef 5, 8-14 [2ª lectura del IV. domingo de Cuaresma (A)]

Salmo responsorial

Sal 102, 1b-2. 3-4. 6-7. 8 y 11: «Gustad y ved» (CLN, n. 518).

Evangelio

Mt 5, 13-16 [Evangelio del 5º domingo del Tiempo Ordinario (A)]

Homilía / Examen de conciencia

La realidad es triste para muchos de nosotros. Tenemos más, pero no somos más. Perdemos el tiempo y la vida queriendo ir tan deprisa. Tenemos más números y letras en la cabeza, pero no sabemos las cosas de la vida. Cada día hay más gente en el mundo, pero nosotros tenemos menos amigos. Esta es la realidad.

En fin, que hemos ganado en cantidad, pero hemos retrocedido en calidad. El mundo camina entre la luz y la oscuridad. Pero en medio de tantas tinieblas nosotros, creemos en el triunfo de la

Otoitza

Egin dezagun otoitiz.

Isilunea utzi, otoitzerako.

Aita on, hemen gaituzu barkamen beharra dugun zure seme-alabok. Askotan antzeman dugu bizitzaren gogortasuna. Baina beste batzuetan guk tratatu ditugu gogor besteak. Gaur, garen guztia zure aurrera ekarri nahi dugu: gure gogoak eta ametsak, gure arrakasta eta porrotak, gure bekatuak eta bertuteak. Dena ekarri dugu, Jauna, eta zure aurrean jartzen dugu garbi dezazun eta zure bedeinkapenez eraldatu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Lehenengo irakurgaia

Ef 5, 8-14 [Garizumako IV. igandeko (A) 2. irakurgaia]

Erantzun-salmoa

Sal 102, 1b-2. 3-4. 6-7. 8 y 11: «Erruki hutsa » (Gora Jainkoa 2, 55. or).
edota: «Eskerrak eman, nire arima» (Gora Jainkoa 7, 160. or).

Ebanjelioa

Mt 5, 13-16 [Urtean Zehar 5. igandeko (A) ebanjelioa]

Homilia / Kontzientzia azterketa

Errealitatea gordin gertatzen zaio gutako askori. Gehiago dugu, baina ez gara gehiago. Denbora eta indarra galtzen dugu azkarrago joan nahirik. Zenbaki eta letra gehiago dugu buruan, baina ez dakigu gehiago bizitzaz. Gero eta jende gehiago dago munduan, baina lagun gutxiago dugu. Hori da errealitatea.

Garbi esanda, kantitaeen irabazi dugun adinean, atzera egin dugu kalitatean. Argiaren eta ilunaren tartean dabil mundua. Baina

luz; creemos en el triunfo del amor sobre el odio.

Ahora vamos a examinar nuestra conciencia, nuestras actitudes frente a la LUZ, con mayúsculas, que es el Señor. Iluminemos nuestro interior con la luz de la palabra de Dios. Nosotros, los cristianos, estamos llamados a ser sal y a ser luz en medio del mundo, a realzar los valores verdaderamente humanos, sabiendo que la fe sostiene la vida cuando otros valores nos fallan. Desde la fe, ponemos alegría allí donde hay tristeza, damos nuestra compañía allí donde hay soledad, nos olvidamos de nuestros propios intereses a favor del bien común.

Por eso nos preguntamos:

- Personalmente...

Afirmación: Dios quiere que tú seas feliz, que te cuides y que te quieras. Dios quiere que te valores, para poder valorar a los demás. Dios quiere que seas positivo contigo.

Para la reflexión: ¿Siento que con los años voy ganado en humanidad, o retrocediendo? ¿Vivo con esperanza en medio de las dificultades que la vida me va presentando? ¿Trasmito esperanza a mi alrededor o, más bien, lamentos y pesimismo? ¿Todo lo veo mal? ¿Soy pesimista? ¿Qué pecados me están destruyendo como persona?

- En relación con los demás...

Afirmación: Cristo es la luz del mundo y nos invita también a ser luz. Luz para ayudar a otros a salir de la oscuridad. Luz para iluminar con la verdad de Dios las mentiras de una sociedad que levanta ídolos. Luz para dar alegría y esperanza en medio de la tristeza y del temor.

hainbeste laino artean, argiaren garaipena sinesten dugu; maitasunak gorrotoa gaingidituko duela sinesten dugu.

Kontzientzia azterketa egingo dugu orain; ARGIAREN aurrean, Jaunaren aurrean alegia, zein jarrera dugun ikusiz. Jar gaitezen Jainkoaren Hitzaren argitan. Kristau moduan, munduaren erdian argi eta gatz izatera deituak gara, benetan gizakiarentzat ongari diren baloreak lehenetsiz, beste balioek indarrrik ez dutenean fedeak bizitzari eusten diola jakinik. Fedea oinarri dugula, alaitasuna jartzen dugu tristura dagoen tokian, gure elkertasuna bakardadea dagoen lekuan eta ahaztu egiten gara geure interesez, denen ongia bilatuz.

Horregatik, geure buruari galdetzen diogu:

- Neure buruari dagokionaz...

Baieztapena: Jainkoak zu zoriontsu izatea nahi du, zeure burua zaintzea eta maitatzea. Zeure burua estimatuz besteak estimatzea nahi du Jainkoak. Zeurekiko baikorra izatea nahi du Jainkoak.

Hausnarketa: Urteen poderioz gizatasun gehiagoz jokutzen dut edo atzera egiten dut beti. Bizitzan suertatzen zaizkidan zailtasunen aurrean itxaropenez jokutzen al dut? Itxaropena zabaltzen al dut nire inguruan ala etsipena eta ezkortasuna nagusitzen dira nire bizitzan? Dena gaizki ikusten al dut? Ezkorra al naiz? Zein dira pertsona bezala suntsitzen nauten bekatuak?

- Besteekiko harremanari dagokionaz...

Baieztapena: Kristo da munduaren argia eta argi izatera gonbidatzen gaitu. Idoloak gurtzen dtuen gizartearen gezurrak Jainkoaren egiarekin argi ditzagun. Tristeziaren eta beldurraren aurrean alitasuna eta itxaropena zabal ditzagun.

Para la reflexión: ¿Soy capaz de ceder en mis intereses por favorecer a los otros? ¿Soy orgulloso y prepotente, tratando de anular o sobresalir por encima de los demás? ¿Ando siempre obsesionado con mi imagen, o soy capaz de aceptarme como soy? ¿Acepto también a los demás como son? ¿Respeto a los otros en sus personas, sus ideas, en sus propiedades? ¿Me preocupo por alegrar la vida de los que me rodean o ando siempre quejándome y exigiendo? ¿Tengo verdadera preocupación por los que forman mi familia? ¿Soy cariñoso y detallista con mi esposa, marido, hijos...? ¿Doy buen ejemplo a los hijos, me preocupa el diálogo y la convivencia en el hogar?

- Como cristiano...

Afirmación: Ser cristiano es ser discípulo de Cristo. Es caminar por las huellas que Él marcó. Es seguir sus pasos, amar como él amó, ser capaz de perdonar. Ser luz para el que quiere ver. Ser cristiano es ser otro Cristo.

Para la reflexión: ¿Me tomo en serio mi vida de cristiano? ¿Acepto la misión que Jesús me ha encomendado? ¿Soy capaz de crear paz en mis relaciones? ¿Busco el bien de los demás o más bien busco solo mi comodidad? ¿Acudo con los hermanos a celebrar la eucaristía los domingos y otros días? ¿Cuento con Dios en mi vida? ¿Soy capaz de hablar de Dios y Jesucristo a los demás o me da vergüenza? ¿Soy una mujer, un hombre de oración? ¿Qué lugar ocupa Dios en la vida familiar? ¿Hago oración con los míos?

- En relación con la Iglesia y mi parroquia...

Afirmación: Hay muchos que dicen que creen en Cristo, pero no en la Iglesia. Pero no es posible creer en el fundador y no en su obra. La fe tiene una dimensión personal y comunitaria. Creemos y nos salvamos en comunidad, en Iglesia. La Iglesia es la gran familia de los que creemos en Jesucristo como salvador.

Hausnarketa: Gai al naiz nire interesak alhora utzi eta besteenak lehenesteko? Harroa eta handikia al naiz, besteak gutxietsiz eta denen gaintik jarriz? Neure irudiarekin arduratuta bizi al naiz edo gai naiz neure burua onartzeko? Onartzen al ditut besteak diren bezaala? Errespetatzen al ditut besteak, beraien ideiak, beraien gauzak? Arduratzen al naiz besteak pozteaz edo beti kexu eta eskatuz bizi naiz? Arduratzen al naiz egiaz nire familaz? Maitekor eta gertuko al naiz nire emazte, senar edo seme-alabekin? Ejenplu ona ematen al diet nire seme-alabei, arduratzen al naiz etxeko elkarrizketaz eta elkarbizitzaz?

- Nire kristau bizitzari dagokionaz...

Baieztapena: Kristau izatea Kristoren jarraitzaile izatea da. Bere urratsak jarraituz ibiltzea. Bere pausoak jarraitzea, berak bezala maitatzea, barkatzeko gai izatea. Ikusi nahi duenarentzat argi izatea. Kristau izatea beste Kristo bat izatea da.

Hausnarketa: Serio bizi al dut nire kristau izatea? Jesusek niri eman didan misioaz jabetzen al naiz? Nire harreman guztietan bakez bizitzen saiatzen al naiz? Besteen onak kezkatzen al nau edota neure erosotasunak bakarrik arduratzen naiz? Senideekin biltzen al naiz iganderoko eukaristian? Jainkoa nire bizitzaren alderdi garrantizua al da? Hitz egiten al diet besteei Jainkoaz eta Jesu Kristoz edo lotsatu egiten naiz? Otoitz egiten al dut? Zein toki du Jainkoak nire familia bizitzan? Otoitz egiten al dut etxekoekin?

- Elizarekiko eta nire parrokiarekiko harremanari dagokionaz...

Baieztapena: Asko dira Kristogan sinesten dutela esan arren, Elizarengan sinesten ez dutela diotenak. Baina ez da posible fundatzailearengan sinestea eta bere lana ez aitortzea. Fedeak berekin du dimentsio pertsonala baita elkartekoa ere. Elkartean, Elizaren baitan sinesten dugu eta salbatzen gara. Jesu Kristo salbatzaile aitortzen dugunon familia handia da Eliza.

Para la reflexión: ¿Coopero con las necesidades de la Iglesia? ¿Mi apoyo a Cáritas, Manos Unidas o asociaciones solidarias es constante o me conformo con dar una limosna de tarde en tarde? ¿Mis críticas a la Iglesia van acompañadas de cariño y respeto por lo que representa? ¿Participo asiduamente en los sacramentos? ¿Me preocupo por aumentar mi formación cristiana? ¿Leo la Biblia? ¿Participo en algún grupo de reflexión cristiana en la parroquia?

Rito de reconciliación

El sacerdote:

Recordando la bondad de Dios, nuestro Padre, confesemos nuestros pecados, para alcanzar su misericordia y perdón. Digamos juntos:

Todos juntos dicen: Yo confieso...

Ahora, como comunidad santa y pecadora, pedimos perdón. a cada petición respondemos:

Puede hacer las invocaciones un lector:

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Señor, porque muchas veces hemos olvidado que somos tus hijos y por olvidar que los demás son nuestros hermanos.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Padre por adorar a los ídolos y por dejarnos vencer por la comodidad y el consumismo.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Señor, por nuestra mediocridad, por nuestra falta de testimonio. Y porque no somos luz para los que buscan tu rostro.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

Hausnarketa: Laguntzen al diot Elizari bere beharretan? Caritasi, Manos Unidas elkarteari edota beste elkarteei sarritan laguntzen diet, edo inoiz limosna bat emanda konformatzen naiz? Elizari egin diezazkiokedan kritikak maitasunez eta errespetuz eginak izaten al dira? Sarritan parte hartzen al dut sakramentuetan? Arduratzen al naiz nire kristau hezibideaz? Irakurtzen al dut Biblia? Parte hartzen al dut parrokian hausnarketa edo otoitz talderen batean?

Adiskidetzearen ohikunea

Apaizak

Aitaren onginahia gogoratuz, aitor ditzagun gure bekatuak, bere errukia eta barkamena irits dezagun. Esan dezagun elkarrekin:

Guztiek esango dute: Aitortzen diot..

Orain, elkarte santu eta bekatari garenez, eska dezagun barkamena, eskari bakoitzari erantzun diezaiozun: guzti hauek

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

Irakurle batek egin ditzake eskariak:

– Barkatu, Jauna, askotan ahaztu egiten baitugu zure seme/alaba garela baita besteak senide ditugula ere.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, sasi-jainkoak gurtu eta erosotasunaren eta kontsumokeriaren morroi bihurtzen garelako.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, erdipurdiko jokutzen dugulako, behar bezalako testigantza eman beharrean. Ez garelako argi-emaile zure bila dabilzanentzat.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Perdón, Señor por nuestra falta de caridad y nuestra insolidaridad sobre todo con los que más sufren.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón, Señor, por nuestra falta de esperanza, por nuestras tristezas y pesimismo.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón, Señor, porque no amamos como tú nos amas.

Sigue el sacerdote:

Ahora, con las mismas palabras que Jesús nos enseñó, invoquemos a nuestro Padre para que perdone nuestros pecados:

Todos juntos dicen: Padre nuestro...

El sacerdote concluye diciendo:

Dios y Padre nuestro, que nos has predestinado a ser hijos tuyos para que fuésemos santos en tu presencia y viviésemos con gozo en tu casa, recíbenos y consérvanos en tu amor, para que vivamos con alegría y caridad en tu santa Iglesia. Por Jesucristo, nuestro Señor.
R/. Amén.

Confesión y absolución individual

Ahora se hacen las confesiones individuales.

Acción de gracias por la misericordia de Dios

Una vez concluidas las confesiones, el sacerdote que preside la celebración, teniendo junto a sí a los otros sacerdotes, invita a la acción de gracias y a la práctica de las buenas obras, con las que se manifiesta la gracia de la penitencia, tanto en la vida de cada uno como en la de la comunidad.

– Barkatu, Jauna, maitasun faltagatik, baita gehien sufritzen dutenekin elkartasun gutxi adierazi izanagatik ere.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, gure itxaropen falta, gure tristura eta ezkortasunak.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, Zuk maite gaituzun bezala ez maitatzeagatik.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

Apaizak jarraituko du:

Orain, Jesusek erautsi zigun hitzak erabiliz, eska diezaiogun gure Aitari barka ditzala gure bekatuak:

Guztiek: Gure Aita...

Apaizak jarraituko du:

Gure Jainko eta gure Aita, zure seme-alaba izateko aukeratu gintuzun, zure aurrean santu izan gintezan eta zure etxean pozik bizi; onar gaitzazu eta gorde zure maitasunean, pozez eta maitasunez bizi gaitzen zure Eliza Santuan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

Banakako aitortza eta barkamena

Banakako aitortzak egingo dira une honetan.

Jainkoaren errukiarengatik eskerrak ematea

Aitortzak bukatuta, batzarburuak beste apaizak ere ondoan dituela, eskerrak emateko eta egintza egokiren bat egiteko deia luzatuko du, penitentziaren graziaren adierazgarri izango da hori bai norberaren bizitzarako bai elkarteko bizitzarako ere.

El sacerdote que preside termina con estas palabras:

El perdón supremo de Jesús ofrecido a quien lo ha crucificado nos muestra hasta dónde puede llegar la misericordia de Dios, la misma que acabamos de experimentar en el sacramento de la reconciliación. María atestigua que la misericordia del Hijo de Dios no conoce límites y alcanza a todos sin excluir a ninguno. Dirijamos a ella nuestro canto, para que nos haga dignos de contemplar el rostro de la misericordia, su Hijo Jesús.

Todos juntos cantan «Santa María del Amén» (CLN, n. 312).

Rito de conclusión

El Señor esté con vosotros.

R/. Y con tu espíritu.

Inclinaos para recibir la bendición.

El Padre nos bendiga, pues nos llamó a ser sus hijos.

R/. Amén.

El Espíritu Santo nos fortalezca, pues hizo de nosotros su templo.

R/. Amén.

Y que os bendiga Dios todopoderoso, Padre, Hijo + y Espíritu Santo.

R/. Amén.

El Señor ha perdonado vuestros pecados. Podéis ir en paz.

R/. Demos gracias a Dios.

Hitz hauekin bukatuko du:

Gurutziltzatu zutenekin Jesusek izan zuen barkamen handiak agertzen digu noraino iristen den Jainkoaren errukia, guk geuk oraintxe adiskidetze sakramentuan gozatu duguna. Andre Mariak adierazten digu Jainkoaren Semearen errukiak ez duela mugarik eta inor baztertu gabe guztiongana iristen dela. Amari kantatuko diogu orain, errukiaren aurpegia den Jesus Jauna ikusteko gai egin gaitzan eskatuz.

Denek kantatuko dute «Egizu, zuk, Maria... Bekatariok ama».

Bukaerako ohikunea

Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jainkoaren bedeinkapena hartzeko.

Bedeinka gaitzala bere seme-alaba egin gintuen Aitak.

R/. Amen.

Indar gaitzala Espiritu Santuak, bere bizitoki egin gintuenak.

R/. Amen.

Eta bedeinka zaitzate la Jainko ahalguztidunak, Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.

R/. Amen.

Barkatuak daude zuen bekatuak. Zoazte Jaunaren bakean.

R/. Eskerrak Jainkoari.

